



aurkezten du:

Errauskine

Gioacchino Rossiniren Opera



GIDA DIDAKTIKOA




Gran Teatre del Liceu
Servei Educatiu



Gran Teatre del Liceu
Servei Educatiu

La Cenicienta
Rossini - Comediants



Sarrera

Errauskine Gioacchino Rossini (1792 – 1868) konpositore belkantistaren musika osagai guztiak biltzen dituen opera bat da. Emanaldian zehar honakoak entzungo ditugu: ariak, Errauskine protagonista distiratsuak abestuta ornamentazioz beteta –**koloraturak**–; erritmo-doinu komikoak, **bufoak**, Magnifiko Jaunaren edo Dandini lekaioaren ahotan; sotiltasun eta ahots-apainduraz betetako ariak.

Rossiniren musikak honakoekin gozaraziko digu:


- baretasun eta malenkonioa uneak (Errauskine: *Había una vez un rey...*)
- doinu alai eta sendoak (Dandini: *Del principe, lacayo soy...*)
- erritmo aberastasun handiko zati komikoak (Magnifiko Jauna: *Cada vez que me dormía: cuchicheo sin parar...*)
- dramatismo biziko uneak (Kontzertantea: *Yo quiero ir a bailar...*)
- amodiozko duetoak (Erramiro eta Errauskineren duetoa: *He notado una explosión...*)

Errauskine operaren ekoizpenak **Comediants Konpainiaren** eszena zigilua darama. Zuzendariak, **Joan Font-ek**, haurrentzako Rossiniren *La Cenerentola* jatorrizko operaren egokitzaipena egin du, txikiagotze bitxi, dibertigarri, ulergarri eta originalaren bidez. Eszenaratzeak musika eta plastika une esanguratsuenak batzea lortu du:

- pertsonaien mugimenduak, haien ahotsek indartuta, sobera ezaguna den baina intriga berriko osagaiak dituen istorio baten gertaerak adierazten ditu.
- efektu bereziak dituen luminotekniak musikarien presentzia/ausentzia errealitatera dakar eta agertokia tximinia beltzeko sukalde edo jauregi bihurtzen du.

Errauskineren Gida Didaktikoa (Rossini - Comediants): M. Antònia Guardiet

- jantzi bizi eta irudimentsuak, pertsonaiak karikaturizatzen dituzten ileordeekin
- arratoi narratzailearen mugimenduak, zehaztapen imitatzaile handikoak.



Aurkezten dugun Gida didaktikoa honako arloetara bideratuta dago:

- **Rossini.** Bere bizitza eta obran murgilduko gara. Lehen atal hau haren *La Cenerentola* jatorrizko operan zentratzen da. Argumentua, hitz batzuk italieraz eta zatirik ezagunenak erakutsiko ditugu.



- **Errauskineren argumentua.** Entzungo dugun opera hurrei zuzendutako *La Cenerentola*ren bertsio txikia da. Bigarren zati honetan argumentuaren laburpena aurkeztuko dugu eskola ingurunean antzeztua edota abestua izan dadin sustatzeko. Protagonistaren bitxikeria batzuk eta ipuinaren hainbat argumentu bariazio daude barne.



Musika une onenak.

Operako musikaren eta protagonisten ezaugarriak azpimarratzen ditu atal honek. Ikasleriari argumentuaren laburpena aurkezteko erabil daitezkeen partitura eta grabaketak dauzka.

Proposamen didaktikoak

Gidak jarduera didaktiko multzo bat dauka, zailtasunaren arabera bi ataletan banatuta. Denek eskaintzen dituzte edozein aldaketa egiteko moduko proposamen zabalgarri eta irekiak.

Figurinak

Osagai grafikoak dauzkan atal honek, Joan J. Guillen eszenografoak diseinatuak, antzezten den paperean pertsonaia bakoitzaren karakterizazioa erakusten du. Irakasleriari baliagarriak izan dakizkioke operaren argumentua aurkezteko edo jarduera artistiko eta plastiko mota ezberdinak iradokitzeke.




Hainbat baliabide

Interneteko web-guneetarako esteka multzo bat hautatu dugu, eta bertan honakoa kontsulta daiteke: Rossiniri buruzko edukiak —biografia eta obren erreperitorioa—; YouTube atarian egoteagatik eskuratzeko errazak diren grabaketak eta *La Cenerentola* operaren audio eta bideo-grabaketen aipamenak.




Gran Teatre del Liceu
Servei Educatiu

La Cenericienta
Rossini - Comediants



Egilea

Gioacchino Rossini



- ⇒ G. Rossiniren bizitza eta operak
- ⇒ G. Rossiniren umore sena
- ⇒ **La Cenerentola**
- ⇒ Fitxa teknikoa
- ⇒ Pertsonaien ahotsak
- ⇒ Musika une onenak



G. Rossiniren bizitza eta operak

Gioacchino Rossini 1792ko otsailaren 29an jaio zen —urte bisustua!—



Italiako Pesaro hirian, Iraultza Frantsesaren garaian, Errepublika frantseseko gudarosteak Italiako hiri askotan sartu eta hedatu zirenean.

Rossiniren familia umila musikan aritzen zen. Bertako bandako tronpeta-jole baten eta partiturak irakurtzen ez zekienez opera paperak buruz ikasi behar zituen bigarren mailako opera abeslari baten seme bakarra izan zen. Gurasoek zuten musika prestakuntza eskasak motibatu egin zituen semeari musika-hezkuntza egokia emateko.

Gioacchinok oso ahots ona zeukan. Oso gaztetatik musikarako trebetasun nabarmenak erakutsi zituen. Amaren eskutik opera asko ikusi ahal izan zituen.

14 urterekin Boloniako Akademia Filarmonikoan onartu zuten, bertan musika ikasi ahal izan zuen eta Mozart eta Haydnen obrak kontsultatu. Boloniako Akademia zen bi musikari alemaniarren partiturak aurki zitezkeen Italiako leku bakarra. Haien azterketak bere musika hizkuntzako nozioak hobetzea ahalbidetu zion.

Rossinik orkestra hedatu zuen, haize-tresnei garrantzi handiagoa emanda, ordura arte orkestra italiarretan presentzia handirik ez baitzeukaten. Soinu potentzialtasun handiagoa eman zien musikan tentsiotik baretasunera eta alderantziz joatea eragiten duten crescendoak eta diminuendoak sartuta, publikoaren gustuko aldaketak.

1806an, Akademian sartu zen urtean, Rossinik lehen opera idatzi zuen: **Demetrio e Polibio**. 1810ean, Veneziako opera antzoki batek ekitaldi bakarreko opera bufa bat eskatu zion: **La cambiale di matrimonio**. Oso arrakastatsua izan zen. 18 urterekin Rossinik bere ibilbide profesionalari ekin zion opera konpositore gisa.



18 eta 37 urte bitartean 30 opera konposatu zituen. Ia bat eta erdi urtean! Sortutako opera bufek —komikoek— bere garaiko konpositore europar famatuena bihurtu zuten. Ezagunenak eta antzeztuenak hauek dira: **L'italiana in Algeri** (Italiarra Argelen, 1813); **Il turco in**

Italia (Turkiarra Italian, 1814); *Il barbiere di Siviglia* (Sevillako bizargina, 1816) eta *La Cenerentola* (Errauskine, 1817).

Bere operai esker, Rossini Italia osoan izan zen ospetsua. XVIII. mende bukaerako eta XIX. mende hasierako publiko italiarrak gogoz itxaroten zituen bere **opera bufak**. Opera nagusietako enpresariak (Venezia, Milan, Napoli, Erroma, Viena, Paris,...) etengabe eskatzen zizkieten modan zeuden konpositoreei hurrengo denboraldiko programazioetan estreinatzeko errepertorio berriak.

Rossinik Viena eta Londresera bidaiatu zuen eta bertan, bere ospea areagotzeaz gain, diru-kopuru handia irabazi zuen kontzertuak zuzenduz eta musika-eskolak emanez. Passyn, Parisetik hurbil, jarri zen bizitzen monarkia frantsesak Pariseko Operan estreinatuko ziren hamar opera konposatzeko kontratatu zuenean. *Guillaume Tell* (Gilermo Tell, 1829) izan zen bere azken opera-konposizioa. 1830eko uztailera iraultzak monarkia kendu zuen, eta ondorioz, bere kontratua amaitu egin zen.

Konpositore lanetan 38 urterekin hartu zuen erretiroa. Harrezkero, bere buruaz arduratu zen: lasaitasuna eta elikagai onak maite zituen. Horrela, ondo merezitako ospearen saria jasotzen zuen.

Hirurogeita hamasei urte arte bizi izan zen, nabarmentzeko moduko musika nobedaderik berriz konposatu gabe; beti bere miresleen konpainiaz inguratuta. Parisetik hurbil hil zen 1868ko azaroaren 13an.

G. Rossiniren umore sena

Rossinik umore sen handia zuen. Ez zela batere mozten eta otutzen zitzaiona etorri ahala esaten zuela ulertarazten diguten pasadizo asko daude.



- Kontatzen dute behin soprano bat, Rossiniren laudorioak jaso nahian, *Il barbiere di Siviglia* operaren Rosinaren "Una voce poco fa" aria abestu zuela egileak partituta idatzi ez zituen apaindura eta ornamentazio ugari asmatuta. Obra amaitu

bezain laster, Rossini harengana hurbildu eta oso serio esan omen zion:
—Zorionak, oso ederra! Norena da partitura?

- Rossinik *La cam biale d i m atrimonio* bere lehen opera estreinatu zuenean, orkestraren soinu bizitasuna opera bufo batek inoiz gainditu gabeko mugetara eraman zuen. Orkestrako musikariek matxinada txiki bat egin zuten, partitura hura ezin zitekeela jo esanez. Aldi berean jotzen zuten tresna kopurua gehiegizkoa zela eta sortzen zuten zarata jasanezina zela zioten. Haien matxinada justifikatuta zegoen eskarmenturik gabeko hasiberri batek konposaturikoa baitzen.
- Behin, pianista eta konpositore gazte batek interes handia zuen Rossinik larunbat gauetan Passyn, Parisetik hurbileko herri batean, antolatzen zituen gau emanaldietara joateko. Berak konposatutako bi partituretatik Maisuak lehiaketa batean aurkezteko zein zen egokiena gomenda ziezaion nahi zuen.
- Rossinik lehena entzun eta bigarrena jotzeari ekin baino lehen, jaiki eta esan omen zion: —*Badakit, oso argi daukat! Aurkeztu bigarrena*. Ziur entzun berri zuena baino hobe izango zela.
- Domenico Barbaiak, Napoliko San Carlo Antzokiko enpresari ospetsuak, opera bat enkargatu zion 1816an: *Otello*. Erosotasunez konposatu ahal izateko, bere Palazzo Berio utzi zion. 24 urterekin, Rossinik konpromisoa onartu zuen. Kontuan hartu behar da gaztea uneko opera-konpositore onentzat zutela. Gonbidatua sei hilabetez egon zen Barbaiaren jauregian, lagunekin jaten eta edaten. Nazkatuta, enpresariak gela bakarti batean giltzapetu zezatela agindu zien zerbitzariei. Rossini irakindako makarroiak jatera eta ura edatera behartua izan zen lana bukatu arte, hasi gabe zeukana, antza. Hogeita lau ordutan obertura konposatu zuen eta egun gutxi geroago operaren hiru ekitaldiak, originaltasun bakarra 1, 2 eta 3 zenbakiak zirelarik. Barbaiak ez zekien musikarik eta ezin izan zuen antzeman Rossinik behin baino gehiagotan errepikatu zuela obertura osoa. Horrela, askatasuna berreskuratu eta hainbeste maite zituen makarroi trufatuak gozatu ahal izan zituen.



La Cenerentola

Il barbiere di Siviglia antzezpenaren ondoren — Rossinik hogeita lau urterekin idatzi zuena, hamabost egun baino gutxiagotan-. 1816ko otsailaren 20an estreinatu zen eta konpositoreak bere kontratua berritu zuen Erromako **Valle Antzokiko** enpresariarekin beste obra bat idazteko. Beste batzuetan bezala, adosturiko estreinaldirako data hurbil zegoela lana hasi gabe zeukan, ez baitzeukan garbi argumentua.

Jacopo Ferretti libretista izan zen **Charles Perrault-en** maitagarrien ipuin famatuaren argumentu entzutetsua proposatu ziona: **Errauskine**. Rossinik onartu egin zuen, baina aurretik baldintza batzuk ezarrita:

- Pertsonaiek giza profila edukitzea.
- Eduki magikoa zuten eszenak, gustatzen ez zitzaizkionez, pertsonaia batek ordezkatzeko, aholkulari filosofo eta jakintsuaren paperarekin: Alidoro. Arrazoiz beteriko gogoeta, XIX. mendearen hasieran protagonisten ezaugarri moralizatzaileak oso ondo ikusita baitzeuden.
- Amaordearen ordeza aitaordea izatea, horrela ahotsak orekatu ahal izateko, ahots eta eszena dohain bikainak bilduko zituen lau emakumezko ahotseko opera konpainia bat aurkitzeko zailtasuna aintzat hartuta.
- Zapata ordeza eskumuturrekoa jartzea. Opera antzoki batean atrebentzia handia izango zen emakumezko baten hanka orkatilaraino erakustea. Garaiko zentsurak ez zuen onartuko.

Opera presaren tentsiopean konposatu zuen. Libretistak bakarrik hogeita bi egunetan idatzi zuen argumentua. Rossinik hogeita lau egunetan osatu zuen partitura.

La Cenerentola, ossia La bontà in trionfo izan zen opera honen izenburua. Bi ekitalditan idatzita, Rossinik *dramma g iocoso* bezala sailkatu zuen, argumentuari sentiberatasun eta giza errealismo zertzeladak emanda, baina komikotasuna alde batera utzi barik, menderatzen zuen baliabidea baitzen, bere garaikideek asko prezatzen zutena. Erromako **Valle Antzokian** estreinatu zen 1817ko urtarrilaren 25ean. Publikoari gustatu egin zitzaion komedia. Opera abeslariari eskatzen zien ahots-akrobaziengatik nabarmendu zen: birtuosismo

eta zailtasun handiko ornamentazioak. *La Cenerentola* musika errosiniarra da, *bell cantoren* tradizioari fidela, abesteko ahots zailtasun handiagokoa.

Aurki bihurtu zen arrakastatsua. Italia guztian antzeztu zen. Milango Scalan 44 aldiz. Espainian, 1818ko uztailan, Bartzelonako Santa Cruz Antzokian estreinatu zen. New Yorken 1825ean antzeztu zuen Malibran mezzosoprano gazteak.

La Cenerentolaren fitxa teknikoa

▫ Jatorrizko izenburua: **La Cenerentola**

▫ Jatorrizko hizkuntza: **Italiera**

▫ Generoa: **Dramma giocoso**

▫ Musika: **Gioacchino Rossini**



(http://ca.wikipedia.org/wiki/Gioacchino_Rossini)

▫ Libretoa: **Jacopo Ferretti**

▫ Iturri literarioa: Charles Perraulten **Cendrillon** (*Errauskine*) maitagarrien ipuina

(http://ca.wikipedia.org/wiki/Charles_Perrault)

▫ Ekitaldiak: Bi

▫ Gutxi gorabeherako iraupena: 187 minutu

▫ Estreinaldia: 1817ko urtarrilak 25 Erromako **Valle Antzokian**

Pertsonaien ahotsak

Angelina - *Errauskine*, Magnifiko Jaunaren alabaordea: mezzosoprano lirikoa edo errossiniarra

Erramiro Jauna, Salernoko printzea: tenorra

Dandini, printzearen zerbitzaria: baritonoa

Alidoro, filosofoa eta Erramiro Jaunaren irakaslea: baritonoa

Magnifiko Jauna, Montefioscaniko baroia: baxu bufoa

Klorinda, Magnifiko Jaunaren alaba zaharra: sopranoa

Tisbe, Magnifiko Jaunaren alaba gaztea: mezzosopranoa



Errauskineren Gida Didaktikoa (Rossini - Comedians): M. Antònia Guardiet

Errauskine da protagonista, aria distiratsu eta zailenak abesten ditu. Partiturak ornamentazio eta, koloratura ikusgarrienak esleitzen dizkio.

Erramiro printzea, morroi-erara jantzita doanean ere, ez dio utziko gu hunkitzeari nolabaiteko noblezia kutsuko musikarekin. **Dandiniren** kontrakoa da, printzez moztururiko lekaioa, abesteko era komikoak nabarmentzen duena, *bufo* errossiniarra.

Klorinda eta Tisbe ahizpaordeak, nortasun bekaizti eta burlatiarekin melodia mekaniko eta hotzagoak abesten dituzte, eta ez dituzte emozioak esnarazten.

Montefiasconeko baroi **Magnifiko Jaunaren** ariek, Errauskineren aitaordearenek, tonurik ozar eta komikoen ematen diote operari; baina badu bere ahots eta silaba zailtasuna, eta *Il ba rbiere di Sevigliako* Figaro pertsonaia ekartzen digu gogora.

Printzearen filosofo aholkulariak, **Alidorok**, neurrizko lasaitasun-kutsua emango die bere abestiei.

La Cenerentolaren musika une onenak

Rossiniren *La Cenerentola* operaren arrakasta dator protagonistaren samurtasunaren eta distiraren arteko kontrastetik, gertaeren intrigatik —kontu magikoak ekiditen dituzten pertsonaia gizatiartuek irudikatuta — eta testuinguru komiko-bufo errossiniarra islatzen duten paper batzuen efektu komikoetatik.

Ahots akrobazia Rossiniren operen osagairik nabarmenetarikoa da. Abeslariak eskatutako birtuosismoak *bell canton* aurkitzen du maila gorena. Interpretazio edertasuna lortzeko **Errauskinek**, **Erramiro Jaunak** eta **Dandinik** ahots teknika menderatu behar dute. Horrela baino ez dira partiturari emozioa emateko gai izango, euren ahotsa tresnatzat dutela.

Rossiniren opera bat entzutean, gehien nabarmentzen dena **koloraturak** dira, ariak ahots ornamentazio distiratsu eta zailekin apaintzen baititu. Pesaroko musikariak nabarmendu egiten zituen partituran; ez zituen gogoko abeslari gehienek gehitzen zituzten apaindurak. Gailentzen zen gustu txarra mugatu eta bere musika beharrezkoak ez ziren hutsalakerietatik babestu nahi zuen.

Koloraturak idatzita uzten bazituen, berez abesteko zailak izaten zirenak, inork ezin izango zituen bere oharrak aldatu.

Nabarmentzen ditugun musika uneak hemen entzun daitezke:

- http://www.cuentameunaopera.com/interior.asp?variable=index_partitura.htm

Web-gune honetan, istorioa laburbilduta eta musika jarrita aurkitzeaz gain — NAXOS diskoetxearen baimena dauka— ordenagailurako joko didaktikoak eta adinka sailkatutako hainbat opera aurki daitezke.

CDa: ***La Cenicienta, El triunfo de la bondad***, Rossiniren *Errauskine* operatik aurrera. Testuak eta irudiak Georgina Garcia-Mauriñorenak, 2007. Musika-zatiak Rossinirenak —*La Cenerentola*— NAXOS Deutschland GmbH. (30 bat minutu).



	Aria, duetoa, seikotearen izenburua ...	Protagonistak
1	Sinfonia⇒	Orkestra
2	<i>Un volta c'era un Re</i> ⇒	Errauskine
3	<i>O figlie amabile</i> ⇒	Korua
4	<i>Cenerentola vien qua</i> ⇒	Errauskine . Klorinda, Tisbe, Alidoro eta korua
5	<i>Miei rampolli</i> ⇒	Magnifiko Jauna
6	<i>Un soave nonso chè</i> ⇒	Erramiro Jauna eta Errauskine
7	<i>Zitto, zitto, piano, piano</i> ⇒	Erramiro Jauna eta Dandini
8	<i>Venga inoltri</i> ⇒	Korua
9	<i>Soi Dandini il cameriere</i> ⇒	Dandini eta Erramiro Jauna
10	<i>Una volta c'era un re</i> ⇒	Errauskine
11	<i>Siete voi! Questo è un nodo avviluppato</i> ⇒	Errauskine , Klorinda, Tisbe, Dandini eta Magnifiko Jauna (seikotea)
12	<i>Non piu mesta accanto al fuoco</i> ⇒	Errauskine

2 ERRAUSKINE

(con tono flemmatico)
Una volta c'era un Re,
Che a star solo s'annoio:
Cerca, cerca, ritrovò;
Ma il volean sposare in tre.
Cosa fa?
Sprezza il fasto e la beltà.
E alla fin sceglie per sé
L'innocenza e la bontà.
La la là
Li li lì
La la là.

3 KORUA

O figlie amabili - Di Don
Magnifico
Ramiro il Principe - Or or verrà,
Al suo palagio - Vi condurrà.
Si canterà - Si danzerà:
Poi la bellissima - Fra l'altre
femmine
Sposa carissima - Per lui sarà.

4 KLORINDA eta TISBE

Cenerentola vien qua.
Le mie scarpe, il mio bonné.
Cenerentola vien qua.
Le mie penne, il mio collié.
Nel cervello ho una fucina;
Son più bella e vo' trionfar.
A un sorriso, a un'occhiatina
Don Ramiro ha da cascar

6 ERRAMIRO

Un soave non so che
In quegl'occhi scintillò!

ERRAUSKINE

Io vorrei saper perché
Il mio cor mi palpitò?

ERRAMIRO

Le direi... ma non ardisco.

ERRAUSKINE

Parlar voglio, e taccio intanto.

ERRAUSKINE eta ERRAMIRO

Una grazia, un certo incanto
Par che brilli su quel viso!
Quanto caro è quel sorriso.
Scende all'alma e fa sperar

7 ERRAMIRO

(sotto voce)
Zitto zitto, piano piano;
Senza strepito e rumore:
Delle due qual è l'umore?
Esattezza e verità.

5 MAGNIFIKO JAUNA

Miei rampolli femminini,
Vi ripudio; mi vergogno!
Un magnifico mio sogno
Mi veniste a sconcertar.
Come son mortificate!

Degne figlie d'un Barone!
Via: silenzio ed attenzione.
State il sogno a meditar.
Mi sognai fra il fosco e il chiaro
Un bellissimo somaro.
Un somaro, ma solenne.
Quando a un tratto, oh che
portento!
Su le spalle a cento a cento
Gli spuntavano le penne
Ed in alto, fsct, volò!
Ed in cima a un campanile
Come in trono si fermò.
Si sentiano per di sotto
Le campane sdindonar.
Col cì cì, ciù ciù di botto
Mi faceste risvegliar.

...

8 KLORINDA, TISBE, ERRAMIRO
eta DANDINI

Ma chi è?

ALIDORO

Nol palesò.

KLORINDA eta TISBE

DANDINI

Sotto voce a mezzo tuono;
In estrema confidenza:
Sono un misto d'insolenza,
Di capriccio e vanità.

8 KORUA

Venga, inoltri, avanzi il piè.
Anticamera non v'è.

ERRAMIRO eta DANDINI

Sapientissimo Alidoro,
Questo strepito cos'è?

ALIDORO

Dama incognita qua vien.
Sopra il volto un velo tien.

KLORINDA eta TISBE

Una dama!

ALIDORO

Signor sì

11 ERRAUSKINE (*osservando il
vestito del Prence*)

Voi Prence siete?

KLORINDA eta TISBE (*fra loro,
attonite*)

Qual sorpresa!

Sarà bella?	DANDINI
ALIDORO	Il caso è bello!
Sì e no.	MAGNIFIKO JAUNA (<i>volendo interrompere Ramiro</i>)
ERRAMIRO eta DANDINI	Ma...
Chi sarà?	ERRAMIRO
	Tacete.
9 DANDINI	MAGNIFIKO JAUNA
È un romanzetto.	Addio cervello.
È una burla il principato,	(<i>prende a sé Ramiro e Dandini</i>)
Sono un uomo mascherato.	Se. . .
Ma venuto è il vero Principe	ERRAMIRO eta DANDINI
M'ha strappata alfin la	Silenzio.
maschera.	KLORINDA, TISBE, Cenerentola,
Io ritorno al mio mestiere:	Erramiro, DANDINI eta
Son Dandini il cameriere.	MAGNIFIKO JAUNA
Rifar letti, spazzar abiti	Che sarà!
Far la barba e pettinar.	Questo è un nodo avviluppato
MAGNIFIKO JAUNA eta	
DANDINI	
Ah che questa è una sassata	Questo è un gruppo
Che fischiando inaspettata	rintrecciato.
Mi/Gli dà in fronte e	Chi sviluppa più inviluppa,
all'improvviso	Chi più sgruppa, più raggruppa;
Mi/Lo fa in terra stramazzar.	Ed intanto la mia testa
MAGNIFIKO JAUNA	Vola, vola e poi s'arresta;
Di quest'ingiuria,	Vo tenton per l'aria oscura,
Di quest'affronto	E comincio a delirar.
Il vero Principe	
Mi renda conto.	

DANDINI

Oh non s'incomodi
Non farà niente.
Ma parta subito
Immantinente.

10 ERRAUSKINE

(con tono flemmatico)
Una volta c'era un Re,
Che a star solo s'annoio

11 ERRAMIRO

T'arresta.
Che! Lo smaniglio! È lei! che
gioia è questa!
Siete voi?

12 ERRAUSKINE

Padre... sposo... amico... oh
istante!
Non più mesta accanto al fuoco
Starò sola a gorgheggiar.
Ah fu un lampo, un sogno, un
gioco
Il mio lungo palpitar

KORUA


Tutto cangia a poco a poco
Cessa alfin di sospirar.
Di fortuna fosti il gioco:
Incomincia a giubilar.



Gran Teatre del Liceu
Servei Educatiu

La Cenicienta

Rossini - Comediants



Argumentua



- ⇒ Istorioa kontatuko dugu
- ⇒ Konpara ditzagun bertsioak
- ⇒ *Errauskineren* izenak hainbat hizkuntzatan
- ⇒ *Errauskineren* bertsioak
- ⇒ Bitxikeriak



Argumentua

Istorioa kontatuko dugu

Moztu eta plastifikatu pertsonaia bakoitzaren figurinak. **Gioacchino Rossiniren** (1792-1868) **Errauskine** operaren argumentua azaldu zati esanguratsuenen arteko batzuk abestuz. Obra ezagutzeko edota gogoratzeko modu ona izango da hau. Lehen hezkuntzako goi zikloko ikasleriak zazpi pertsonaieetatik seiren antzezpenean /narrazioan laguntzea proposatzen dugu.

Egiaztatu behar dugu ikasleriak ipuinaren Perraulten bertsio magikoa ezagutzen duela, operara joaten direnean ikusi eta entzungo dutena oso **Errauskine** ezberdina baita. Perraulten ipuinean printzea jauregian geratzen da, eta erresumako gazte ederrenak berarengana joatea itxaron besterik ez du egiten. Rossinik gertaerak aldatu zituen, **Erramiro printzeak** bere nahia lortzeko parte har dezan eraginez, horrela argumentua korapilatuta.

(Protagonistaren izena hasieratik ez esatea gomendatzen da, aldeztu aurretik istorioa identifikatu ez dezaten)

(Entzun hasierako sintoniaren zati bat)

Arratoia: —Magnifiko Jaunaren etxean gaude. Tximiniatik hurbil ikusten duzuen operako protagonista da, eta ez dio inoiz lan egiteari uzten. Bere bizimodua ez da oso zoriontsua. Magnifiko Jaun baroia, bere aitaordea, dirurik gabeko gizona da. Bi alaba dauzka, Klorinda eta Tisbe, zein baino zein zekenago eta harroago. Eguna ispiluaren aurrean ematen dute, kolperik jo gabe.

Klorinda: *Abestutako aurkezpena (Ikus partitura Musika uneetan)*

Tisbe: *Abestutako aurkezpena (Ikus partitura Musika uneetan)*

Errauskine: *Abestutako aurkezpena (Ikus partitura Musika uneetan)*

Klorinda: —Ez dugu nahi zuk abestea! Garbitu, pasa erratza eta ez gu izutu.

Errauskineren Gida Didaktikoa (Rossini - Comedians): M. Antònia Guardiet

- Tisbe: —Hori! Pasa erratza, garbitu eta ez gu molestatu!
- Errauskine: —Ez naiz inoiz kexatzen, beti ari naiz lan egiten. Utzi bakean abesten, behintzat.
(*atea jotzen dute*)
- Klo / Tis /
Erra —Nork jo du?
- Dandini: *Abestutako aurkezpena (Ikus partitura Musika uneetan)*
- Arratoia: — Imajinatu nola jarriko diren bi hauek... eta ez beraiek bakarrik, baita haien aita Magnifiko Jauna ere. Egiten duten zarata izugarriarekin, ziur lo-kuluxkatik esnatuko dutela. Horrek sekulako umore txarra jartzen dio.
- Magnifiko
Jauna: *Abestutako aurkezpena (Ikus partitura Musika uneetan)*
—Asto miresgarri batekin ari nintzen ametsetan. Hegoak hazi zaizkio eta, bat-batean, hegan hasi da. Kanpandorre batera igo eta eseri egin da, tronu bat balitz bezala, eta kanpaiak jotzen hasi dira: dinbili-danbala, dinbili-danbala. Une horretan bertan esnatu nauzue. (*haserre*)

Zer esan nahi ote du amets honek? Kanpaiek alaitasuna iragartzen dute. Hegoak zuek zarete, koroaturiko printzesak. Ni astoa naiz, bai. Baina... zuek erreginak bazarete, emango dizkidazuen bilobak printzetxoak izango dira eta ni noble bat. Arranopola, arranopola!
- Tisbe: —Erramiro printzeak jauregian jaialdi handi bat egingo duela iragarri digute, ezkondu nahi duelako.
- Klorinda: —Zein berri handi! Errauskine, esnatu, azkar, has zaitez lanean!

Magnifiko —Jantzi printzesaz, erregetza konkistatu behar dugu eta.
Jauna:

Erramiro *(Morroiz jantzita sartu da eta ez du inor aurkitu etxean)*
Jauna: —Arropa honekin ez nau inork ezagutuko. Egun on! Ba al da norbait? *Ez dio inork erantzuten.*

Errauskine: *Berrir*o abes ten d u a bestutako aurkezpenaren zati bat *(Ikus partitura Musika uneetan)* *(Ezezagun bat ikustean, oihu egiten du)*
—Ai!

Erramiro —Zelako sustoa!
Jauna:

Errauskine: —Zein dardara!

Erramiro —Ez naiz munstro bat!
Jauna:

Errauskine: —Bai... Ez, jauna!
Abestutako aurkezpena (Ikus partitura Musika uneetan)

Erramiro —Baroi jaunaren alaben bila nabil. Abisa ditzakezu, mesedez?
Jauna:

Errauskine: —Goian daude jairako prestatzen. Orain jaitsiko dira.

Arratoia: —Ez duzue antzeman? Oso maiteminduta daude, lehen begi-kolpeko maitasuna. Ziur dagoeneko asmatu duzuela zerbitzari hain argi hau Erramiro printzea dela, mozorrotuta. Bere maitea aurkitu nahi du, inork printzea dela jakin barik.

Dandini: *(Dandini sartzen da printzearena egi ten. A hizpei begiratzuz)*—Asko hitz egin didate zuen edertasunaz... Zein edertasun pareka dakizueke? Aitaxoren berdin-berdinak zarete: “*Talem patris, talem filias*”.

Klorinda: —Printze!

Magnifiko —Egon oso adi, ez diezagula ihesik egin.
Jauna

Tisbe: —Bagoaz dantzaldira karrozan!
(Badoaz bi ahizpak Dandinirekin)

Errauskine: —Jauna... ordubete besterik ez. Ordubete joatea besterik ez
dizut eskatzen. Utzi dantzara joaten, jauna.

Magnifiko —Lotsagabe halakoa! Kur-kur, kar-kar!... Zu ezin zara hara
Jauna: joan!

Errauskine: —Ordu erdi baino ez. Ordu erdi eta ziztu bizian itzuliko naiz.

Magnifiko —Nahikoa da, utzi bakean, neskame! Zoaz garbitzera!
Jauna:

(Erramiro Jauna eta Dandini sartu eta gertatzen denaz ohartzen dira)

Abestutako aurkezpena (Ikus kuartetoaren partitura Musika uneetan)

Errauskine: —Jaunak, espero dut konbentzitzea dantzaldira joaten utz
diezadan.

Magnifiko —Nahikoa da. Joateko garbitzera!
Jauna:

Erramiro —Tontolapiko hau ez bada lasaitzen, ez dakit neure burua
Jauna: kontrolatu ahal izango dudana.

Dandini: —Ene lagun, Magnifiko Jauna, utz iezaiozu dantzaldira joaten.

(Azkenean, hiru gizonak irten eta Errauskine bakarrik geratzen da)

Arratoia: —Heldu da Errauskine gajoarentzat gauzak aldatzen hasteko
ordua. Magia pixka bat beharko dugu.

(Karroza baten transformazioa)

—Orain bai joan gaitezkeela dantzaldira.

(Dantzalekuan. Ahizpak lakrinkukeriatan dabilta mozorroturiko printzearekin)

Klorinda: —Zaharrena naiz. Beraz, niri dagokit lehena ezkontzea.

Tisbe: —Hobe ni aukeratzeko banauzu, gazteagoa naiz.

Klorinda: —Bera jaiotzetik da ergela.

Tisbe: —Bada, honek ez dauka ulertzerik eta ezjakintasunean bizi da.

Dandini: —Neskak, lasaitu, Jainkoaren izenean. Bitan zatitu nahi al nauzue?

(Erramiro Jauna agertzen da)

Klorinda: —Eduki nahi zaitut...

Tisbe: —Ukitu nahi zaitut...

Dandini: —Biekin ezkontzea, hori ezinezkoa delakoan nago. Zeuetariko bat aukeratuko dut ...

Klorinda Tisbe: —Eta bestea? Eta bestea zer!

(Dandinik Erramiro Jauna, benetako printzea, seinalatuz)

Dandini: —Ezkon dadila gazte honekin!

Erramiro Jauna: —Goxoa, maitekorra eta senar ona izango naizela hitz ematen dizuet.

Klorinda Tisbe: —Lekaio batekin? Zein gustu txarreko txantxa. Lehenago nahiago dugu heriotza.

Arratoia: —Endredoizko joko honekin, Dandini zerbitzaria eta Erramiro printzea, ondo mozorrotuta, oso ondo pasatzen ari dira ahizpa lotsagabeei ziria sartzen. Baina, bat-batean, espero gabeko

neska ezezagun bat agertu da. Itxura misteriotsua eta erakargarria du. Bere itxura mirakulu magikoa da!

Erramiro *Abestutako a urkezpena (Ikus partitura: Nor izango ote da? Musika uneetan)*

Jauna,
Dandini,
Klorinda eta
Tisbe: *(Errauskine aurpegia estaltzen di on bel o b atekin sartzen da eta kendu egiten du. Denak harrituta geratzen dira)*
—Ai! Oi!

Magnifiko *(Magnifiko Jauna sartu eta ustekabekoarekin ah o bet e hortz gelditzen da)*
Jauna:
— Ai! Oi!

Errauskine: —Ez nabil luxu bila. *(Erramiro Jaunari begira)* Emaztetzat nahi banauzu: errespetua, maitasuna eta ontasuna eskatzen dizkizut.

Klorinda: —Emakume hau ezaguna egiten zait...

Tisbe: —Zein ederra, ez dauka akatsik!

Magnifiko —Ezin da bera izan, ez. Errauskine zikina eta zatarra da.
Jauna:

Tothom: —Tira, goazen afari handira. Goazen gozatzera eta dantzatzera.
— Beldur naiz amets eder hau kea bezala desagertuko den.

Magnifiko —Ene alabak, zeuekin fidatzen naiz. Barre eginarazten
Jauna: badiozue, ziur zuetarikoren bat erregina izango dela.

Rap erara errezitaturiko aurkezpena (Ikus hitzak Helduentzako jardueretan)

Arratoia: —Egoera gero eta gehiago nahasten ari da. Orain badirudi Dandini, benetako printzearena eginez, Errauskine seduzitu nahi duela.

- Dandini: —Emazte nahi zaitut.
- Errauskine: —Ez zara zu, jauna, nire bihotzak maite duena.
- Dandini: —Eta horrela esaten didazu, aurpegian?
- Errauskine: —Zure zerbitzaria maite dut.
(*Erramiro Jauna elkarrizketa hau entzuten ari da*)
- Erramiro Jauna: —Baina, ez tituluek, ezta aberastasunak ere ez zaituzte liluratzen?
- Errauskine: —Ez! Amodioa da nire altxor bakarra eta nire aberastasunik handiena.
- Erramiro Jauna: —Nahi duzu nire emaztea izan?
- Errauskine: —Lehenik elkar ezagutu beharko genuke... Horrela, bata bestearentzat egina gauden jakingo dugu.
- Erramiro Jauna: —Goazen oraintxe bertan!
- Errauskine: —Agindu egiten dizut: ez nazazu jarraitu!
- Erramiro Jauna: —Nola ahal izango zaitut aurkitu?
- Arratoia: —Istorioaren une zehatz honetan Errauskinek zapata bat ematen dio Erramiro Jaunari eta joan egiten da. Erramiro eta Dandini zur eta lur geratzen dira. Hemendik aurrera, dena egingo dute gazte eder ezezaguna aurkitzeko.
- Erramiro Jauna eta Dandini: *Abestutako a urkezpena (Ikus partitura Musika uneetan: Hura aurkitzeko egin beharrekoa)*
- Errauskine: *Berriri abes ten d u a bestutako aurkezpenaren zati bat (Ikus partitura Musika uneetan)*

—Pausoak entzuten ditut.

(Klorinda, Tisbe eta Magnifiko Jauna datozela ikustean)

—Aurpegi txarra duzue, ez al da ondo joan jaialdia?

Magnifiko —Bazegoen zure antza zuen sorgin gaizto bat... Baina bistan
Jauna: da ez zinela zu.

(Tximista eta trumoi ekaitza)

(Ekaitza bukatuta, Dandini eta Erramiro Jauna iristen dira, karrozarekin i stripu bat izan ondoren)

Dandini: —Laguntza! Laguntza! Gure printzearen karroza irauli egin da!

Magnifiko —Uf, zu! Non dago printzea? *(Harrituta, Erramirori begira,*
Jauna: *zerbitzariz moxorrotuta)*

Erramiro —Barkamena eskatu nahi nuke. Izan ere, istripu larria eduki
Jauna: dut.

Magnifiko —Ez kezkatu. Errauskinek aulki bat ekarriko dizu.
Jauna:

Errauskine: —Oh! Baina, zer ari naiz ikusten? Nire printzea da-eta!

Erramiro —Zeu zara! Azkenean aurkitu zaitut. Zure zapata dakarkizut.
Jauna:

Errauskine: —Zu printzea al zara?

Tisbe: —Zelako ustekabea!

Klorinda: —Hau txantxa bat da, ezta?

Magnifiko — Ez al duzu ikusten nola egiten duten barre zutaz.
Jauna:

Erramiro —Zin dagit. Berarekin ezkonduko naiz.
Jauna:

Dandini: —Heldu zaizue hainbeste irain, hainbeste zapaltzeko eta etengabeko umilazioak ordaintzeko ordua.

Errauskine: —Ene printzea, hainbeste maite banauzu eta zure amodioa benetakoa bada, erruki zaitez beraietaz eta barka itzazu. Tronura igoko banaiz, haiek baino eskuzabalagoa agertu behar naiz. Dena ahaztu nahi dut. Irabaz dezala ontasunak!

Konpara ditzagun bertsioak

Perraulten ipuinaren eta Joan Fontek —Comediants— eta David Pintok egokitutako G. Rossiniren operaren bertsioaren gertaeren arteko ezberdintasunak.

Perraulten ipuina

Cinderelle

Bertsioa

Maitagarriak eta bere botere magiko eta zoragarriek istorioa maitagarrien ipuin bihurtzen dute.

Oro har, gogorra eta tristea egiten zaigun istorioa da amaordearen eta haren bi alaben tratuaeren ankerkeriaren ondorioz.

Pertsonaiak

Errauskine, gazte ezti eta sentibera.
Amaorde gaiztoa.

Rossiniren opera (J. Font / D. Pinto)

Errauskine

Botere magikoak eta naturaz gaindiko osagaiak ez dira agertzen istorioan, Rossinik berak hala nahi izan zuelako.

Pertsonaien ezaugarri onberenak estimatzen dira: ontasuna, adimena eta xalotasuna.

Magnifiko Jaunak eta Dandinik zertzelada komikoak ekartzen dizkiote operari, musikak une dramatikoak baditu ere.

Errauskine —Angelina— ausarta eta langilea.

Magnifiko Jauna, aitaordea, denen

Bi ahizpaorde lotsagabe eta jeloskor.

Maitagarria, botere magikoak dituen.

Printze urdina, jauregitik mugitu ere egin gabe bere erresumako neska onenei itxaroten diena.

barregarri izango dena.

Klorinda eta Tisbe, Magnifiko Jaunaren alaba harro eta berekoiak.

Erramiro printzea, zerbitzariz mozorrotuta oso paper adimentsua eta aktiboa duena. Bera benetan maiteko duen gazte baten bila parte hartzen du.

Dandini, Erramiro printzearen laguntzailea; printze plantak egiten ditu bere jaunari gazte onbera eta adimentsu bat aurkitzen laguntzeko.

Arratoi bat; istorioaren haria eramaten du eta agertoki aldaketetan parte hartzen du narratzailearen paperean.

Objektu magikoa

Makilatxo magikoa eta kristalezko zapata bat.

Arratoi bat eta zapata bat.

Intrigako osagaiak

Maitagarriak Errauskine printzesa bihurtzeko darabilen makilatxo magikoa.

Gauerdian eragin magikoak bukatzen dira.

Erresuma guztian zehar erregearen jauregiko eskaileretan kristalezko zapata bat galdu duen neska gaztea bilatzen da.

Hasieran ez dute onartzen Errauskinek zapata probatzea.

Errauskineren izaerak dituen egiatasuna eta onberatasuna istorioa aldatuko duten osagaiak izango dira.

Printzeak eta bere lekaio Dandinik jantziak trukutzen dituzte. Printzeak ezkondu nahi duen gaztearen benetako nortasuna egiaztatu nahi du. Pertsona gisa denarengatik maitatua izan nahi du, ez duen posizio sozialarengatik.

Magnifiko Jauna eta bere bi alabak

Azkenean egia gailentzen da.

barregarri geratzen dira Dandini eta printzearen aurrean. Haien irainak eta harropuzkeria nabarmen geratzen dira.

Amaiera

Amaiera zoriontsua, ahizpei barkamena emanda, Errauskineren adimen eta bihotz onaren ondorio ukigarria.

Amaiera zoriontsua: Angelina Erramiro Jaunarekin ezkondua. Azken arian, duintasun goreneko ekintza batean, barkatu egiten ditu ahizpak.

Operaren azken uneetan, jauregiko agertokiak argiztapen aldaketa bat dauka eta etxeko giro bihurtzen da. Errauskinek berriz pasatzen du erratza, gertatutako guztia ametsa balitz bezala..

Errauskineren izenak hainbat hizkuntzatan

Hizkuntza	Errauskineren izenak
Gaztelaniaz:	Cenicienta: Errautsetatik hurbil lan egiten duena
Euskaraz:	Errauskine: Errauts hitzetik dator.
Katalanez:	Ventafocs: Etxeko suari haizea ematen diona hura bizitzeko.
Frantsesez:	Cendrillon: Izen hau lanak bukatuta errautsetatik hurbil atsedean hartzen duen gazteari ematen zaio. (Frantsesez, errautsa: <i>cendre</i>).
Ingelesez:	Cinderella

Hizkuntza	Errauskineren izenak
Alemanez:	Aschenbrödel
Txineraz:	Yen-Shen
Nederlanderaz:	Assepoester

Errauskineren bertsioak

Existitzen diren *Errauskineren* bertsio ezberdinek aldaketak ekartzen dituzte pertsonaien kontzepzioan, dauden osagai magikoetan, argumentuan,.... Ikusi alde esanguratsuenak:

Bertsioa	Aldaketak
Txina	<i>Errauskinek</i> (Yen-Shen deitua) erresumako oin txikienak dituela azpimarratzen da, txinatar kulturean hau noblezia eta dotoretasunaren ikurra baita Bertsiorik zaharrena da, 860. urte ingurukoa.
Charles Perrault:	Maitagarriak Errauskineren ama zenaren borondatea irudikatzen du, amaordearen ankerkeriak suminduta Errauskinek galdutako zapata (<i>Cendrillon</i> frantsesez) kristalezkoa da. Egileak material hau aukeratu izana badirudi XVII. mendean gizartean zuen mirespenarekin lotzen dela. Printzeak bi dantzaldi antolatzen ditu. Bigarrenean galduko du Errauskinek kristalezko zapata. 1697ko bertsioa. Herrikoiena eta ezagunena da. Jacopo Ferrettik hau erabili zuen G. Rossinik 1817an <i>La Ceneretola</i> opera konposatzeko <i>libreto</i>a bihurtzeko.
Grimm anaiak:	Errauskinek galtzen duen zapata urrezkoa da.

Errauskineren Gida Didaktikoa (Rossini - Comedians): M. Antònia Guardiet

Bertsioa	Aldaketak
Alemania:	Ahizpaordeak printzeari ziria sartzen saiatzen dira, batako oinako behatz bat moztuz eta besteak orpo bat zaurituz, horrela zapata jantzi ahal izateko. Txori batek ematen dio printzeari iruzur saioen inguruko abisua. Hemen ez dago maitagarri pertsonaiarik. Soinekoa eta zapatak Errauskineren amaren hilobi ondoan hazi den zuhaitz baten alboan agertuko dira.
Jacopo Ferreti: G. Rossiniren operaren libretoaren egilea.	Errauskineren izena Angelina da. Bere aitaordea Magnifiko Jauna da. Osagai magikoa eskumuturreko bat da. <i>Erramiro Jaun</i> printzeak eta bere laguntzaileak, <i>Dandinik</i>, paperak trukatu dituzte, printzeak bera pertsona gisa eta erregetzan duen posizioari begiratu gabe maiteko duen emaztegai bat topatu ahal izateko. Maitagarri tradizionala <i>Alidorok</i> ordezkatu du, antzina printzearen tutore izandako filosofoak.
Beste bertsio batzuk:	Osagai magikoa eraztun bat da. Hiru dantzaldi ere egon daitezke.

Bitxikeriak

Jules Massenetek opera bat konposatu zuen protagonista berarekin: *Cendrillon*. Baileterako bi bertsio daude, egile hauek eginak: S. Prokofiev eta Johann Strauss.

Irudi ezagunenak Walt Disneyrenak dira, 1950ean marrazki bizidunekin egindako Errauskineren istorioaren produkziokoak.


“*Errauskine*” hitza kirol-munduan ere erabiltzen da *a priori* hobeak diren talde edo jokalarien kontra lehiaketa batean parte hartzen duen talde edo jokalaria bat izendatzeko.

“*Errauskine*” kirol-txapelketa batean hasieran berarengandik espero zena baino askoz ere eta hobe delako erakusten duen talde edo jokalaria bati ere esaten zaio. Egun, *ustekabe ederra* emandako jokalaria edo talde deituko genioke.



Gran Teatre del Liceu
Servei Educatiu

La Cenicienta
Rossini - Comediantg



Musika uneak



⇒ Musika uneak

⇒ Pertsonaiak

⇒ Fitxa teknikoa

⇒ Pertsonaien ahotsak

⇒ Abesteko edota entzuteko zatiak



Errauskineren musika uneak

Pertsonaia bakoitzaren eszenaratzeak eta euren ahotsak istorio ezagun batean gertatzen dena baina bestelako intriga batekin kontatzen dute; argiztapen bereziak, ia antzeman gabe, musikariak agerrarazi edo desagerrarazten ditu; agertoki bera sukalde umil edo kolore biziko jauregi dotore bihurtzea; pertsonaien irudimenezko jantzi irrigarriak; arratoi aurkezlearen errealismoz betetako mugimenduak; Magnifiko Jaunaren eta Dandini lekaioaren aria komikoak; sentiberatasunik gabeko zertzelada erritmikoak ahizpaordeen ahotan; nobleziaz gainezka dauden Erramiro Jaunaren ariak eta nota altu eta baxuz betetako ahots ornamentazio ederrak Errauskine distiratsuaren abestietan,... ez dago arreta galtzeko arriskurik **Errauskine** opera ikustean.

Ekoizpenak **Comediants Konpainiaren** eszena-kutsua darama, Rossiniren **La Cenerentola** jatorrizko operaren egokitza pen a egin dute eta. Joan Fontek, zuzendariak, jakin du musika une esanguratsuenak biltzen hurrei zuzendutako hautaketa zaindu, dibertigarri, original eta ulergarri honetan. Ez da erraza 190 bat minutuko iraupena duen bi ekitaldiko opera bat 70 minutu inguruko ekitaldi bakarreko beste bat bihurtzea. Atera den ikuskizunak Alidoro pertsonaia, Erramiro printzearen aholkulari filosofoa eta aztia, alde batera utzi behar izan du, hala nola, gizonen koruaren doinuak. Italieratik gaztelerarako itzulpena eta egokitza pen a Joan Fontek eta David Pintok egin dute.

Albert Romanik jatorrizko orkestraren protagonismoa bi tresnatar a sinplifikatu du: pianoa eta fagota. Tarteka *charles* plater baten perkusioa ere entzungo da.

Ikasleriari operaren argumentua ikuskizunera joan aurretik aurkeztea gomendatzen da. Garrantzitsua da Errauskineren musika zatiak antzemateko gai izatea. Opera batean, giroa, eszena erritmoa eta esanahia musikatik eta protagonisten ahotsetatik datoz; hitzak eta gertaerak bigarren mailan egon daitezke. Ikuskizunetik ateratakoan aria batzuk kantatzeko gai izatea primerakoa litzateke, musika barneratu dutela nabarmentzeko modu bat litzateke.


Badaude musika eta eszena aspektu batzuk azalpenik behar ez dutenak, ikuskizunean zehar nabarmen egiten baitira; beste batzuek, alde aurreko

Errauskineren Gida Didaktikoa (Rossini - Comediants): M. Antònia Guardiet

azalpena behar dute gelan ikuskizuna ikustean ulertu ahal izateko eta ondoren eztabaidagaiak izateko.

Errauskine eta Erramiro Jaun printzearen **ahots akrobaziak -koloraturak-**. Rossiniren operen osagairik nabarmenena abeslariari eskatzen dien birtuosismo handia da. Paper garrantzitsu bat dutenek ahots teknika menderatu behar dute; abesten dituzten ariak nota ugarirekin betetzeko gai izan behar dira eta ahotsa oso ondo kontrolatu behar dute.

Adibide gisa, Errauskinek abesten dituen koloratura ugarien arteko batzuk jarriko ditugu. Begiratu batean, eremu melodiko zabal batean dagoen nota kopuru ugaria egiazta dezakegu.



Ahotsen tesitura nahasgarria izan daiteke. Errauskine mezzosoprano lirikoa edo errossiniarra da. Nota altuenetara iristen da eta emakume protagonisten baxuena abesten du. Opera entzun eta gero, ikasleriari zaila egin dakioke haren ahotsa identifikatzea edo kokatzea. Bakarlari moduan oso aria altuak abesteak sopranotzat jotzera eraman ditzake.

Kontzertanteak lau edo sei ahotsetara. Rossiniren opera pertsonaia guztiek batera abesten duten unez beteta dago. Bakoitzak aktore bakarra balitz bezala jokutzen du; bere papera betez eta sentimenduak adieraziz, gorputz hizkuntzaren bidez, beste abeslarienarekiko kontraesanean. Nahasmendurako diruditen musika uneak dira, aberastasun harmoniko eta bizitasun handia dutenak. Animatu zeuen ikasleak operetan sarritan dauden komunikazio ekintza hauei erreparatzera. Musikari esker, protagonistek euren ahotsak gainjar ditzakete.

Rossiniren kontzertanteak aztertuko bagenitu, musika txantxa huts gisa sailkatu genitzake; erritmoa azkarra da, protagonisten barneko sentimendua erakusten duten hitz perkusiboekin.

Errezitatiboak. Pertsonaiek obraren argumentu haria aurkezten digute musika elkarriketa errezzatiboen bidez, batzuetan hizkuntzaren erritmo eta azentuazioari egokituta. Protagonistek errezzatiboki abesten dutenean, musikarekin obrako narrazio edo ekintza aspektuak adierazten dituzte. Aria hauek ahots bakarlariaren distira melodikoa bultzatzen dute.

Errauskineren fitxa teknikoa

Izenburua: **Errauskine**

Hizkuntza: **Gaztelania**

Generoa: **Haurrentzat egokituriko opera**

Musika: **Gioacchino Rossini**

<http://es.wikipedia.org/wiki/Rossini>

Piano eta fagoterako musika egokitzapena: **Albert Romani**

Libreto: itzulpena eta egokitzapena **Joan Font eta David Pinto**

Iturri literarioa: **Jacopo Ferretti** libretista, era berean Charles Perraulten *Cinderelle* (*Errauskine*) maitagarrien ipuinean oinarrituta.

Ekitaldiak: **Bat**

Iraupena: **60 bat minutu**

Estreinaldia: **2008ko azaroa**, Bartzelonako Gran Teatre del Liceu

Ekoizpena: **Comediants**

Pertsonaien ahotsak

Errauskine mezzosoprano liriko protagonista da. Aria zail eta distiratsuenak abesten ditu. Partiturak ornamentazio (koloratura) ikusgarrienak esleitzen dizkio.

Erramiro Jaun printzeak, lekaioz mozarrotuta ere, ez dio gu hunkitzeari utziko bere tenor ahotsarekin, musika zatiak noblezia itxuraz abestuz.

Dandini, zerbitzari-lekaioa, printzez mozarrotuta bere kantuaren kutsu komikoak nabarmenduko du, baritono *bufo* errossiniarraren berezkoa.

Klorinda eta Tisbe ahizpaordeak, euren nortasun harro, isekari eta zekenarekin, doinu mekaniko eta hotzenak abesten dituzte eta ez dute hunkipena bultzatzen. Lehena sopranoa da eta Tisbe mezzoa.

Magnifiko Jaunak, Montefiasconeko baroiak, Errauskineren aitaordeak, abesturiko ariek kutsu dibertigarri eta barregarriena ematen diote operari. *Sevillako bi zargina* obrako Figaro pertsonaia errossiniarra gogora ekartzen digun ahots eta silaba zailtasuna aurkezten du. (*Sevillako s uperbizargina*, haurrentzako egokitzapenean).

Abesteko edota entzuteko zatiak

Aurkezten ditugun zatiak aria, dueto, kontzertanteei,... dagozkie. Operako agerpen kronologikoaren arabera daude ordenatuta. Batzuk protagonistak aurkezteko erabiliko dira; beste batzuk dueto baten ahotsak edo kontzertante baten abeslari-kopurua... antzemateko. Dagozkien partiturak atxikitzen ditugu. Ikasleei egin beharreko operaren argumentuaren azalpen abestua erraztu diezazuekete. (Kontsultatu **Argumentua** atala).

Klorinda – Ez! Baletako erregina naiz

Allegro con brio



Tisbe – *Bai! Zuretzako egokiena naiz*



Zatarrak eta ergelak izatera iristen dira ahizpa biak, ezta? Klorinda, zaharra, eta Tisbe, gaztea, euren handinahiak lortzeko, dituzten xarma guztiak erabiltzeko prest daude. Batak dantzari moduan dituen trebeziak erakutsiko dizkigu abestuz, besteak, arazeriaz, bere gorputz erakargarritasunak nabarmenduko ditu.

Errauskine – *Bazen behin errege bat*

Andantino



Errauskine doinu triste bat abestuz aurkezten zaigu, bere egoera berezia musikaren bidez deskribatzen duen tonu malenkoniatsuaz. Horregatik, Rossinik tonalitate minorrean konposatu zuen, eta *Andantino* estiloan abestea eskatzen du. Protagonista bakarrik dago, tximiniatik hurbil lanpetuta; baina arratoi bat du ondoan, beti lagunduko diona bere nahia lor dezan: Erramiro printzearen dantzaldira joatea.

Bazen behin errege bat hirutan entzungo da operan zehar. Ikasleriak ezagutu egin behar du eta testuan daukan mezua ulertu: argumentua xalotasun eta onberatasunaren alde eginez bukatzen da.

Dandini – *Printzearen lekaioa naiz*

Allegro con brio



Operaren hasieran Dandini moztortuta agertzen da Magnifiko Jaunaren etxean, eta bertan ahizpa biak aurkitzen ditu. Aria arin eta distiratsua abestuz aurkezten da, eta obrako gertaerak abiaraziko ditu printzeak emaztegaia aukeratzeko egingo duen dantzaldia iragartzean. Berri honek gertaerak azkartuko ditu; argumentua hogeita lau orduan baino gutxiagotan gertatuko da.

Zati ausarta, segurua eta oso alaia da hau. Erritmo irakurmen lan interesgarria bultza dezake gelan. Era berean, doinu memorizazio ariketa bat ere ahalbidetzen du, oso zati gogoraerraza baita.

Magnifiko Jauna – *Loak hartzen ninduen bakoitzean*

Allegro



Ahizpaorde biak, jauregiko dantzaldiaren berriarekin aztoratuta, Magnifiko Jauna lo-kuluxkatik esnatuko dute. Aria alai, erritmiko eta nabarmenki perkusibo honekin, errieta egingo die alabei eta eduki berri duen amets iragarlea azalduko die.

Magnifiko Jaunaren jokabideak barrea eragingo digu. Gertaera pertsonal arraroak bizi ditu eta keinu hanpatu eta harroekin eszenifikaturiko aria komikoak abestuz kontatzen ditu. Lehen aria honek, agertokian agertu bezain laster, eszenaratu dadin irrikatzera garamatza; agerpen bakoitza komikoa izango da, *bufoa*.

Zati hau baxu aria askoz ere zabalago baten barnean dago. Dauzkan figura erritmikoak Lehen Hezkuntzako goi-mailako zikloko jardueretarako egokiak dira. Istorioa azaltzen duenez, doinu ikusgarrienetakoa dela esan behar da, burutzeko ezartzen duen azkartasuna dela-eta.

Duettoa: Errauskine eta Erramiro Jauna

Andante grazioso

Ramiro

The musical score is written for a duet between Ramiro and Cenicienta. It is in G major (one sharp) and 6/8 time. The tempo is 'Andante grazioso'. The score consists of six staves. The first three staves are for Ramiro, and the last three are for Cenicienta. Each character has a vocal line and a piano accompaniment. The music is in a duet format, with each character having a vocal line and a piano accompaniment. The score includes various musical notations such as notes, rests, and fingerings (e.g., 5, 8, 0).

Hau amodiozko duettoa da, ez maitasun-adierazpena. Erramirok eta Errauskinek lehen aldiz ikusten dute elkar. Zuzenean esan barik, maitemindu egiten dira.

Bakoitzak doinu bat abesten du bakarlari gisa, inork entzuteke ozen pentsatzen duenak bezala. Egun, lehen begi-kolpeko maitasuna esaten diogu.

Bikoteak aria lasaia, malenkoniatsua eta ahots apaingarriz jositakoa abesten du. Konturatzeke, hain daude bat eginda, non doinu berbera abesten duten laudun bateko tonu-distantziara; Errauskinek gehituriko bariazioekin aberastuta. Hau da operaren lehenengo koloratura adibidea.

Laukotea: Errauskine, Magnifiko Jauna, Erramiro Jauna eta Dandini

The image displays a musical score for a piece titled "Don Ramiro" from the opera "Cenicienta". The score is written for four voices: Don Ramiro, Dandini, Don Magnifico, and a fourth voice (likely Don Juan). The music is in 4/4 time and features a key signature of one sharp (F#). The score is divided into four systems, each containing four staves. The notation includes various musical symbols such as notes, rests, and bar lines, indicating the melody and harmony for each character.



Hau askoz ere zabalagoa den lau ahotsetako kontzertante baten zatia da. Ahizpek dantza markatu dutenean gertatzen da. Errauskinek, ausart eta energiaz, dantzaldira joateko nahia azaltzen dio bere aitaordeari, ordu erdiz bada ere. Aitaordeak, mehatxuekin eta neskameek eskubiderik ez dutelako argumentu bertsuekin mespretxatzen du. Erramiro Jaunak bere maiteari Magnifiko Jaunak ematen dion tratu krudela ikusiko du, konponbiderik jarri ezinik.

Kuarteto hau *Errauskineren* musika dramatismoko une bizienetariko bat da. Rossinik opera honi emandako *drama giocoso* adjektiboa ezin zaio kuarteto honi ezarri. Hitz gutxirekin eta musika-adierazpen sendo eta gogorrarekin, protagonista bakoitzak bizi duen emozio egoera berezia agertzen du:

atsekabea (Errauskine)

gorde beharreko amorrua (Erramiro Jauna)

lasaitasuna (Dandini)

mespretxua (Magnifiko Jauna)

Erramiro eta Dandini / Klorinda eta Tisbe: —Nor izango ote da?



Hamabi nota funtsezko galdera bat sendotzeko: Nor da dantzaldira heldu berri den neskatila?

Erramiro eta Dandini: —Aurkitzeko egin beharrekoa

Ramiro

Dandini

Dueto motz hau egokia da tenor –Erramiro Jauna- eta baritono –Dandini- ahotsen arteko tinbre ezberdintasuna antzemateko. Zati hau adibide ona da eskuaren keinuaz profil melodikoa marrazteko.

Errauskine Interneten

Nabarmendu ditugun *Errauskine* operaren musika une gehienak hemen entzun daitezke:


http://www.cuentameunaopera.com/interior.asp?variable=index_partitura.htm

Txikienei zuzenduriko oso web-gune interesgarria da. Edukien artean *Errauskineren (La Cenerentola)* istorio laburtu eta musikatua dago, NAXOS diskoetxearena. Operaren munduari buruzko jolas didaktikoak dauzka. Web-guneak opera multzo ona eskaintzen du, adinka sailkatuta eta eskolan edo etxean erabiltzeko ekarpen didaktikoekin.



Gran Teatre del Liceu
Servei Educatiu

La Cenicienta
Rossini - Comediants



Gida didaktikoa

Txikienentzako jarduerak



- ⇒ Sortzaileek euren lana azaltzen digute
- ⇒ Ahotsak
- ⇒ Istoria ordenatzen
- ⇒ Nor da nor?
- ⇒ Rossini hizki-zopa
- ⇒ Musika-tresnak
- ⇒ Pertsonaien arteko harremanak



~~Errauskineren sortzaileek euren lana azaltzen digute~~

Opera bat, agertokian ikusten ez ditugun baina luzaroan lan egin duten pertsona askoren talde-lanaren emaitza da.

Irakurri esaldi bakoitza eta idatzi pertsona bakoitzari dagokion zenbakia, operan egin duen lanaren arabera.

- 1- Rossiniren musika bi tresnatarako egokitu dut: fagota eta pianoa.
- 2- Rossinik italieraz idatzi zuen bere opera. Guk gaztelerara itzuli eta moldatu dugu.
- 3- Musika interpretazioaren arduraduna naiz. Normalean orkestra batutaz zuzentzen dut.
- 4- Antzerki-zuzendaria naiz eta agertokian euren papera ondo antzezten laguntzen diet abeslariari.
- 5- Agertokia eta pertsonaien jantziak diseinatu ditut, kolore biziko figura geometrikoak erabiliz.
- 6- Nire espezialitatea eszena ezberdinetako argiztapena sortzea eta aldaketak kontrolatzea da.



	Eginbeharra	Arduradunak
1	Musika-egokitzailea:	Albert Romani
	Eszenografo eta figurinista:	Joan G. Guillen
	Libreto:	Joan Font eta David Pinto
	Argitzailea:	Alberto Rodriguez
	Musika-zuzendaritza:	Stanislav Angelov
	Eszena-zuzendaritza:	Joan Font

Rossini ~~Errauskine~~ operaren ahotsak


➤ Lotu gezi batez definizio bakoitza dagokion pertsonaiarekin.

Sopranoa naiz. Emakume ahotsen arteko altuena daukat.



Magnifico Jauna

Gizon ahots altuena **tenorrarena** da, nik abesten dudana bezalakoa.



Errauskine

Tisbe

Mezzosopranoak gara.

Soprano (altua) eta kontralto (baxua) artean kokatzen den ahotsa dugu.



Erramiro Jauna

Baritonoa naiz.

Tenor (altua) eta baxu (baxua) artean kokaturiko gizon ahotsa.



Klorinda

Nire ahotsa nota baxuenak abestu dituen da. **Baxua** naiz.



Dandini

Istorioa



Klorinda eta **Tisbe** alabaordeek
Errauskineren istorioa desordenatu dute.
Lagundu iezaguzu ordenatzen.

1	Klorinda, Tisbe eta Magnifiko Jaunak etxeko lan guztiak egitera behartzen dute Errauskine gizajoa. Ez diote agintzeari uzten. Hura euren neskamea balitz bezala!
	Errauskinek gaueko hamabietan egingo du alde dantzalditik. Presak jota, zapata bat galduko du.
	Errauskine Erramiro printzearen dantzaldira joango da, nahiz eta bere aitak, Magnifiko Jaunak, baimena ukatu.
	Erramiro printzeak, zerbitzariz mozorrotuta, neska guztiak jauregira gonbidatuko ditu dantzaldi batera. Azkarrena eta onberena aukeratu nahi du harekin ezkontzeko.
	Errauskine printzearekin ezkondu eta ahizpei barkatu egingo die.
	Erramiro printzeak eta bere zerbitzari Dandinik desagertutako gazte misteriotsua aurkituko dute.

Nor da nor?



Margotu kolore berberarekin esaldia eta horri dagokion pertsonaia

Esaldia	Protagonista
Ahizpa zaharra naiz	Arratoia
Altzariak mugitzen ditut agertokian zehar eta Errauskineri laguntzen diot	Klorinda
Beti ari naiz sukaldea garbitzen	Magnifiko Jauna
Benetan maiteko nauen neska baten bila nabil	Dandini
Nire ahizpa zaharra baino askoz ere ederragoa naiz	Erramiro Jauna
Nire alabetariko bat printzearekin ezkontzen denean, azkenean oso aberatsa izango naiz	Errauskine
Printzearen zerbitzari leiala naiz	Tisbe

Rossini hizki-zopa

“Rossini hizki-zopa” berezi honetan *Errauskine* operan agertzen diren **sei pertsonaien izenak** aurkitu ahal izango dituzu eta konposatu zuen **musikariarena** ere bai. Margotu izen bakoitza kolore ezberdin batekin.

Geratzen diren hizkiekin **esaldi bat egin dezakezu**. Hasi goiko ilarako ezkerretik eta jarraitu ezkerretik eskuinera hurrengo ilaran. Zorte on!

k	k	o	n	p	o	s	i	t	t	o
r	r	l	e	r	r	a	m	i	r	o
o	e	i	o	t	a	l	i	s	a	r
s	b	a	t	r	e	n	o	b	p	d
s	e	r	a	d	i	i	b	e	e	a
i	r	t	i	g	a	n	r	r	i	n
n	a	e	n	t	z	u	d	n	d	d
i	u	g	u	x	s	t	z	a	f	i
	m	a	g	n	i	f	i	k	o	n
e	r	r	a	u	s	k	i	n	e	i

Idatzi osatu duzun esaldia. Egia dela uste duzu?



“Rossini hizki-zoparen” erantzuna

k	K	o	n	p	o	s	i	T	t	o
R	r	L	E	R	R	A	M	I	R	O
O	e	i	O	t	a	l	i	S	a	r
S	b	a	t	R	e	n	o	B	p	D
S	e	r	a	d	I	i	b	E	e	A
I	r	t	i	g	a	N	r	r	i	N
N	a	e	n	t	z	u	D	n	d	D
I	u	g	u	x	s	t	z	A	f	I
	M	A	G	N	I	F	I	K	O	N
E	R	R	A	U	S	K	I	N	E	I

Esaldia:

Konpositore italiar baten opera dibertigarria entzun dugu

Musika-tresnak

Idatzi musika-tresna hauen izenak.

Adierazi gurutze batekin *Errauskine* operan entzun dituzun biak









Pertsonaien arteko harremanak

Idatzi, gezien norabideari jarraituz, pertsonaien artean dagoen harreman pertsonala. Hauek dira erantzunak:

- | | |
|---------------------------------|----------------------------|
| - Ez du maite oso harroa delako | - Elkar maite dute |
| - Ahizpak dira | - Bere aitaordea da |
| - Alaba zaharra da | - Printze bat dela uste du |
| - Ez du haren maitasuna lortuko | - Alaba gaztea da |
| - Lagun onak dira | |



Erantzunak:





Gran Teatre del Liceu
Servei Educatiu


La Cenericienta
Rossini - Comediants



Gida didaktikoa

Handientzako jarduerak

- ⇒ **Errauskineren ekoizpena**
- ⇒ **Zer diote operaren kritikek?**
- ⇒ **Pertsonaiak mintzo dira**
- ⇒ **C. Perraulten *La Cinderelle***
- ⇒ **Operaren argumentua eta herri jakinduria**
- ⇒ **Rossini irratian!**
- ⇒ **Ahotsak**
- ⇒ **Pertsonaien arteko harremanak**
- ⇒ **Magnifiko Jaunak rap bat abesten du**
- ⇒ **Rossini hizki-zopa**



Errauskineren ekoizpena

Opera bat agertokian ikusiko ez ditugun eta luzaroan elkarlanean aritu diren pertsona askoren lanaren emaitza da. Opera-ekoizpen batek honakoa eskatzen du: dekoratuak, antzerki eta eszena mugimenduak sortzea eta egitea, argiztapen aldaketak, ikusgarritasuna pertsonaien karakterizazioan, aberastasuna atrezzoaren osagaietan,... eta, batik bat, musika interpretazio txukuna.

Lotu esaldi bakoitza beheko taulan aurkituko dituzun arduradunekin.

1. Rossinik 24 egunetan konposatu zuen *La Cenerentola* opera; 40 bat musikarirentzat sortu zuen. Nik bi tresnatarako bakarrik egokitu dut: pianoa eta fagota.
2. Gure lana testua italieratik gaztelerara itzultzea eta egokitzea izan da. Hasierako libretoa Jacopo Ferrettirena zen, Charles Perraulten *Cendrillon* ipuinean zegoen oinarrituta.
3. Nire lana da operari musika kalitate gorena ematea eta musikariak – abeslariak eta tresna-jotzaileak- eszena-zuzendariarekin harmonikoki uztartzea.
4. Comediants Konpainiako zuzendaria eta sortzailea naiz. Ikuskizun jendetsuak burutu ditut Bartzelona eta Albertvilleko zeremonia olinpikoetan (1992), Sevillako eta Lisboako Erakusketa Unibertsaletan (1992 eta 1998). Mozarten *Txirula magikoa* (2003) eta Rossiniren *La Cenerentola* (2007) operetako eszena-zuzendaritzan parte hartu dut.
5. Errauskine honen estetikak Comediants Konpainiaren zigilua dauka. Agertokia jai giroko kolore ikusgarri eta, alaiez jantzi dut. Kolorez aldatzen duten eta gela ezberdinak irudikatzen dituzten espazio argitsuak diseinatu ditut.
6. Pertsonaiak kolore biziz jantzi ditut, karikatura bilatzen duen eta figura geometrikoetan inspiratzen den ideia estetiko baten arabera.
7. Argi aldaketak nabarmendu nahi diren protagonisten gainean egiten dira; era berean, transformazio ikusgarriak ematen dizkiote agertokiari.

1	Musika-egokitzapena:	Albert Romani
	Argiztapena:	Alberto Rodriguez
	Figurinista:	Joan G. Guillen
	Eszena-zuzendaritza:	Joan Font
	Libretistak:	Joan Font eta David Pinto
	Musika-zuzendaritza:	Stanislav Angelov
	Eszenografoa:	Joan G. Guillen



Zer diote operaren kritikek?

Egunkari, aldizkari eta hedabideek gure hirietan estreinatzen diren kontzertu eta ikuskizunen erreportajeak eta kritikak egiten dituzte. Gran Teatro del Liceu-k ekoizten dituen operak beti dira berri, euren kultur oihartzuna dela-eta.

Kazetari bakoitzak izenburua jartzen die bere iritzi-artikuluei. Hautaturiko prentsa-zatiak hainbat egunkariarenak dira. Comediants Konpainiak G. Rossiniren *La Cenerentola* (*Errauskine*) operaren gainean egindako ekoizpenaren estreinaldia zela-eta honakook idatzi zituzten:

Egilea/ Egunkaria	Artikuluaren izenburu posiblea
	Ikusizko era eta errazean azaldutako ipuin bat
	Rossiniren herrian bizi den tenorra
	Fantasia <i>Errauskinera</i> itzultzen da Comediants Konpainiarekin
	Comediants Konpainiak bere hizkuntza magiko eta onirikoa Houstoneko Operara eramango du <i>Errauskinerekin</i>

"Desde tiempos remotos, hombres y mujeres han soñado con cambiar su suerte. El modo condicional se ha convertido en una constante de nuestras vidas como quimérica forma de escapar de la cotidianidad. "Todos soñamos con transformar nuestra realidad para poder seguir viviendo en la rutina". Así lo define Joan Font, director del grupo teatral Comediants y responsable escénico de la nueva producción de la ópera de Rossini *La cenerentola* (*La cenicienta*), que hoy se estrena en el Liceo de Barcelona.

[...]

"Todos soñamos con cambiar la realidad en la que vivimos, pero muy pocas veces sucede", reconoce Joan Font, quien con la ayuda de dibujante, escenógrafo y figurinista Joan Guillén ha pintado la ópera de chillones colores de cuento con una estética que busca la caricatura. El propósito, además de recuperar la dimensión fantástica de la historia original escrita por Charles Perrault en 1697, ha sido marcar distancias claras entre la realidad en la que vive el personaje protagonista, la huérfana convertida en criada por sus hermanastras y la fantasía que imagina la cenicienta.

Font ha introducido como personaje de la obra a un grupo de ratas, a las que dan vida bailarines, que se humanizan en el momento en que el sueño y la fantasía se apoderan de la acción. "Las ratas son animales recurrentes en los grabados de los siglos pasados para representar ambientes de pobreza y decadencia. En este montaje, además, contribuyen a las transformaciones escénicas moviendo los elementos del decorado", explica el director de Comediants.

Los roedores se convierten en esta producción en los cómplices de Angélica (La Cenicienta), y su presencia en escena es aplaudida por la *mezzosoprano* Joyce DiDonato, quien interpreta al personaje protagonista. "Son la constatación de la condición de pobreza en la que vive Angélica y de la decadencia de su familia".

Lourdes Morgades (2007-12-23)



EL MUNDO

"Font ha desvelado que se trata de un espectáculo familiar que llevará a Estados Unidos la experiencia ya adquirida por Comediants en la puesta en escena de una ópera para todos los públicos a Estados Unidos.

El equipo español de la nueva producción operística compuesta por **Rossini** sobre el cuento de hadas está encabezado por Joan Font y compuesto por Joan Guillén en la escenografía y diseño de vestuario, Albert Faura en la iluminación y Montse Colomer en la coreografía.

Don Ramiro será el tenor americano, Lawrence Brownlee, el criado Dandini estará interpretado por el barítono americano Earle Patriarco y el padre de Angélica, Don Magnífico, correrá a cargo del bajo barítono Patrick Carfizzi, todos ellos dirigidos por Edoardo Müller.

Será una de las tres óperas familiares que el coso operístico texano ofrecerá en su 42 temporada."

Agencia EFE



EL PERIODICO

Joyce DiDonato y Juan Diego Flórez triunfan con *La Cenerentola*

Una historia universal con acentuada estética de cuento de hadas. Y unos cantantes de primera para dar vida a la magia de *La Cenerentola*, última ópera *buffa* del no menos mágico Rossini. El domingo, las unánimes aclamaciones del público, dedicadas a todos los participantes del montaje, pero especialmente a Joyce DiDonato y a Juan Diego Flórez, demostraron que la producción, lagunas aparte, cuenta con el respaldo del Liceu. La fidelidad de Comediants al libreto se pone de manifiesto desde el primer momento. Nada de invenciones que vayan más allá de los ingenios con el sello de la compañía de Joan Font y del responsable de la escenografía y vestuario, Joan Guillén. Se trata de explicar visualmente el cuento de manera sencilla y directa, con mucho contraste de luz, color y claras estructuras geométricas, que también se manifiestan en los trajes, rematados con cómicas pelucas.

César López Rosell. Barcelona

EL PAÍS

De la entrevista de **Karmentxu Marín** al tenor Juan Diego Flórez el 06-01-2008)

P. Canta en el Liceo *La Cenerentola*. ¿Alguna vez se le ha convertido una calabaza en carroza?

R. Creo que sí, que mi historia es un poco eso. Con un papel secundario en el Rossini Opera Festival en 1996, mi primer trabajo como profesional, el tenor canceló y me dieron el papel protagonista. Necesité mucho esfuerzo para aprendérmelo en tan pocos días, pero sí, fue una calabaza que se me convirtió en carroza.

Perfil

Cumple 35 años el próximo domingo, se ha casado hace poco y se siente muy cerca de su madre y de sus hermanas, aunque no las vea demasiado. Juega al fútbol y al tenis, se está haciendo una casa en Pesaro, patria de Rossini, y es, como el compositor italiano, un gran cocinero.

Pertsonaiak mintzo dira



Deskubritu *Errauskine* operaren zein pertsonaiari dagokion esaldi bakoitza.

“Emakume ahotsen artean nota altuenak abesten dituen naiz. Soprano bikaina izateaz gain, oso ondo dantzatzen dut”.

“Antzinako grabatu eta margoetan txirotasuna eta endekapena irudikatzen genituen. Obra honetan narratzaile gisa parte hartzen dut”.

“Haur literaturaren zati naiz Charles Perraulti (1697) esker. Nire neskame umezurtz errealitate tristea 24 ordutan baino gutxiagotan aldatuko da”.

“Lekaioz mozorrotzen naiz benetan maiteko nauen gaztea aurkitzeko”.



“Denak niri begira egonarazten ditut. Ahizpetan bigarrena naiz eta bietatik tesiturarik baxuena abesten dut: kontraltoa naiz”.

“Txiroitutako Montefioscaniko baroia naiz. Opera honek zuzentzen didan laudoriorik handiena hau da: “*Talem patris, talem filias*”. Badakizu zer esan nahi duen?”

“Baxu ahotsa daukat, ez oso tesitura egokia paper nagusietarako; hala ere, egun batez printzea izatea lortu dut”.



Charles Perraulten *La Cinderelle*

1697an Charles Perrault idazle frantsesak *Cinderelle (Errauskine)* ipuina idatzi zuen.

Jacopo Ferrettik (1817) Perraulten ipuinaren beste bertsio bat idatzi zuen eta hau izan zen Gioacchino Rossinik konpositoreak *La Cenerentola-rako* erabili zuen libretoa.

Irakurri arretaz istorioaren argumentua eta **nabarmendu dagokion kolorearekin** ipuinaren hiru zatietariko bakoitza.

Kolorea	Ipuinaren zatia
Gorria	Planteamendua
Berdea	Korapiloa
Horia	Amaiera

IPUINA

Bazen behin gizon adeitsu bat alaba bat zuena, goxoa eta onbera, haren emaztea zena gogorarazten zioten ezaugarriak. Emakume harro eta zeken



batekin ezkondu zen bigarrenenez, oso antzekoak ziren bi alaba harroren ama.

Ezkontza ospatuta, amaordeak, neskaren ezaugarri onak ikusita, etxeko lan gogor eta umilenak agindu zizkion. Bere alabek gela dotoreak zituzten bitartean,

neskame gazteak lastategian egiten zuen lo.

Zorigaiztokoak dena jasaten zuen pazientzia handiz; ez zen ezta bere aitari kexu egiteko gai ere, eta hura ez zen ezertaz ohartzen, emazte larderiatsu eta mespretxatzaileak menderatuta baitzuen.

Egunak joan eta egunak etorri, lan asko egin ondoren, nekatuta eta umiliatuta, tximiniaren txokoan babesten zen, sugarren berotan eta errautsetatik hurbil eserita; horregatik jarri zioten izen hau: Errauskine.

Goiz batean, erregearen semeak dantzaldi bat iragarri zuen eta bere erresumako neska gazte guztiak gonbidatu zituen.

Errauskineren Gida Didaktikoa (Rossini - Comediants): M. Antònia Guardiet

Hona hemen bi ahizpak soinekoak, ileordeak eta pitxiak aukeratzen jaiko ederrena izateko eta horrela printze lerdenarekin ezkontzeko aukera edukitzeko.

Kezkatiena Errauskine zen; ohiko etxeko lanak egiteaz gain, ahizpak probatzen zituzten arropak garbitu, josi eta lisatu behar izaten zituen.

Azkenean heldu zen desiratutako jauregiko dantzaldia. Zoritxarreko Errauskinek bi ahizpa dotoreak agurtu zituen. Bakarrik geratu bezain laster, negar batean jarri zen etxeko errautsen ondoan.

Aita aldeko maitagarriak, hain goibel ikusita eta dantzaldira joateko haren nahia ezagututa, baratzetik kalabazarik handiena ekartzeko agindu zion. Neskatilaren harridurarako, maitagarriaren makilatxo magikoak karroza zoragarri bihurtu zuen barazkia. Magia berarekin, lastategiko arratoiak eta saguak karroza bitxi haren zaldi eta lekaio bihurtu zituen.

Ukitu magiko zehatzekin, maitagarriak urrezko zetazko soineko zoragarri bihurtu zituen neskatilaren arropa zaharrak. Kristalezko zapata distiratsuak jarri zizkion, gaueko hamabiak baino lehen dantzaldia uzteko gomendatuta. Ez bazuen betetzen, sorginkeria desagertu egingo zen eta karroza kalabaza eta zaldiak arratoi bihurtuko ziren.

Jauregira heldu bezain laster, gazte ezezagun bat dantzaldira heldu berri zela esan zioten printzeari. Egongela handia zeharkatzean, bertako guztiak mututu egin ziren iritsi berriaren aparteko edertasuna mirestean.

Hura ikustean, printzea neskatilekin maitemindu zen; gau guztia egon zen harekin dantzan. Inork ez zuen neska ederra ezagutu, ez amaordeak, ezta bi ahizpa jeloskorrek ere, harengana hurbiltzen saiatzen baziren ere.

Ohartu gabe, orduak joan eta hamabietako kanpaiek jo zuten. Errauskinek korrika egin zuen alde, presarekin eskaileretan kristalezko zapata bat galdu zuen eta printzeak, ihes azkarrak txundituta, jaso zuen. Errauskine nekatuta eta ohiko arropekin jantzita heldu zen etxera, baina kristalezko zapata bat zeukan berarekin.

Printzeak jauregiko guardiari galdetu zion ea ikusi zuen printzesa bat irteten. Handik arropa pobreekin jantzitako neskatila bat baino ez zela irten erantzun zion.

Erregearen semeak, tronpeta soinuaz, dantzaldiaren gauean aurkitutako kristalezko zapatari egokitzen zitzaion oina zeukan neskarekin ezkonduko zela iragartzen zuen ediktu bat argitaratu zuen.

Erresumako neska gazte guztiek zapata probatu zuten, printzeak aukeratua izateko itxaropenarekin. Bi ahizpen etxera heldu zenean, biak saiatu ziren ahalegin handiz oina zapata distiratsuan sartzen; dena alferrikakoa izan zen.

Errauskinek ea berak ere proba zezakeen galdetu zuen. Ahizpek iseka egiten zioten bitartean, kristalezko zapata bikain sartu zen bere oinean. Errauskinek zapataren bikotekidea erakutsi zien bertan zeuden guztiei. Une horretan maitagarria



agertu zen eta makilatxo magikoarekin berriro bihurtu zituen Errauskineren arropa zaharrak soineko eder. Bertan zeudenak azkar konturatu ziren bera zela jauregiko dantzaldira joandako neskatila. Ahizpaordeek barkamena eskatu zioten emandako tratu txarrengatik. Errauskinek bihotzez barkatu zien.

Erregina bezala jantzita jauregira eraman zuten printzearekin topa zedin, eta printzeak ikusi zuenean, lehen aldiz baino are ederragoa iruditu zitzaion. Egun batzuk geroago ezkondu egin ziren. Oso zoriontsuak izan ziren eta hala bazan...



Comediants Konpainiak Rossiniren *La Cenerentola* egokitu du *Errauskineren* muntaiarako.

Idatzi Errauskineren zeure bertsioa egungo osagai, pertsonaia eta egoerekin, gure garaiko istorioa balitz bezala.

Operaren argumentuaren laburpena eta herri jakinduria

Bazen behin neskatilea bat ama hiltzean familian zuen papera ukatu zitzaiona. Bere aitaordeak, Magnifiko Jaunak, eta ahizpaorde ankerrek, Klorinda eta Tisbek, neskame papera inposatu zioten, sukaldeko errautsen artean lan egitera behartuta, horregatik deitzen zioten *Errauskine*.

Bere bizimodu gogorra etxera oso bisitari berezia heldu zen egunean aldatu zen. Jauregian dantzaldi bat egingo zela eta bertan Erramiro Jaun printzeak emaztegaia aukeratuko zuela iragarri zuen. Errauskinek eta bere familiako orok ez zekiten berriemailea printzea bera zenik, zerbitzariz mozorrotuta. Bere benetako izaera ezkutatu nahi zuen. Berarekin maiteminduko zenak bere ezaugarri pertsonalengatik egin zezan nahi zuen, ez erregetzakoa izateagatik.

Errauskine gajoa eta zerbitzaria, benetan printze mozorrotua, elkarri begiratu bezain laster lehen begi-kolpean maitemindu ziren, sorginduta biak.

Aitaordearen baimen ezaren eta Tisbe eta Klorindaren iseken gainetik, maitemindutako neskatilea joan egingo da dantzaldira arratoi baten botere magikoei esker, neskaren arropa umilak zetazko soineko dotore bihurtuko dituen.

Errauskinek jauregira bertaratutako guztien arreta bereganatuko du, inork ezagutu gabe. Dandini lekaioak, dantzaldira printzez mozorrotuta joango denak, ez dio harekin dantzatzeari utziko. Gauerdia iristean, Errauskinek jaitik alde egingo du. Hain azkar joango da, non ihesaldian bere kristalezko zapata bat galduko duen.

Erramiro printzeak, maiteminduta eta haren ihesa ulertu gabe, zerbitzariarena egiteari utziko dio eta ez du etsiko neskatilea ederra aurkitu arte. Erramirok topatu egingo du, eta bere benetako printze izaera onartuko dio. Errauskinek, eskuzabal, berarekin izandako iragan ankerra barkatuko dio bere familiari.

Lotu esaera bakoitza operaren pertsonaia edo gertaera batekin. Azaldu zure aukera eta esaera zahar hauen esanahia.

Esaera	Pertsonaia- Egitatea
Bi erbi hil nahi, batere gabe gelditu	
Urte batean ez gertatutakoa, une batean gertatutako	Arratoiaren magia
Aberatsago, goseago	
Zuri guztiak ez dira irinak, beltz guztiak ez dira ikatzak	
Itxura barik, apoa saltari	
Herrik bere lege, etxek bere aztura	
Etxe hutsa, tristura hutsa	
Jakintsuak badaki irainak barkatzen eta ahazten	
Irabazi duena armonian, galdu duena agonian	
Bakoitzak jakiten du kukusoa non dabilkion	

Rossini irratian!

Rossini pertsona azkarra eta umore-sen handikoa zen. Berari buruzko pasadizo ugari azaltzen dira, haren naturaltasun dibertigarria erakusten dutenak.



Bihurtu berri edo irratiko elkarrizketa Rossiniri buruz kontatzen diren pasadizo hauetariko batzuk.

1

Kontatzen dute soprano bat, Rossiniren laudorioak jaso nahian, ***Il barbiere di Siviglia*** operaren Rosinaren "*Una voce poco fa*" aria abestu zuela egileak partitutan idatzi ez zituen apaindura eta ornamentazio ugari asmatuta. Obra amaitu bezain laster, Rossini harengana hurbildu eta oso serio esan omen zion: —*Zorionak, oso ederra! Norena da partitura?*

-
- 2 18 urterekin Rossinik bere lehen opera estreinatu zuen: *La cambiale di matrimonio*. Bertan orkestraren musikari kopurua handitu zuen aurretik opera bufo batean erabili gabeko kopururaino. Musikariak matxinatu egin ziren uste zutelako partitura hura ezin zela jo. Esaten zuten tresna gehiegi zeudela batera jotzen eta egiten zuten zarata oso desatsegina zela. Uste zuten ezin zitekeela opera ona izan 18 urteko gazte hasiberri hain heldugabeak konposatuta.

- 3 Behin, pianista eta konpositore gazte batek Rossinik larunbat gauetan Passyn, Parisetik hurbileko herri batean, antolatzen zituen gau-emanaldietara joateko interes handia zuen. Konposatu zituen bi partituretatik Maisuak zein zen egokiena lehiaketa batean aurkezteko gomenda ziezaion nahi zuen. Rossinik lehena entzun zuen eta bigarrena jotzeari ekin baino lehen, jaiki eta esan omen zion: —*Badakit, oso garbi daukat! Aurkeztu bigarrena*. Ziur entzun berri zuena baino hobea izango zela.

-
- 4 Domenico Barbaia, Napoliko San Carlo Antzokiko enpresari ospetsuak, opera bat enkargatu zion 1816an: *Otello*. Erosotasunez konposatu ahal izateko, bere Palazzo Berio utzi zion. 24 urterekin Rossinik konpromisoa onartu zuen. Har dezagun kontuan gaztea uneko opera konpositore onentzat zutela. Gonbidatua sei hilabetez egon zen Barbaia onaren jauregian, lagunekin jaten eta edaten. Nazkatuta, enpresariak gela bakarti batean giltzapetu zezatela agindu zien bere morroiei. Rossini



irakindako makarroiak jatera eta ura edatera behartua izan zen lana bukatu arte, hasi gabe zeukana, antza. Hogeita lau ordutan obertura konposatu zuen eta egun gutxi geroago operaren hiru ekitaldiak, originaltasun bakarra 1, 2 eta 3 zenbakiak zirelarik. Barbaia ez zekien musikarik eta ezin izan zuen antzeman Rossinik behin baino gehiagotan errepikatu zuela obertura osoa. Horrela, askatasuna berreskuratu eta hainbeste maite zituen makarroi trufatuak gozatu ahal izan zituen

Rossiniren *Errauskine* operako ahotsak

Idatzi ahotsen eta pertsonaien definizio hauetan falta diren hitzak.

Definizioak

_____ naiz, ahotsik altuena
duen emakumezko abeslaria naiz.


Nire ahotsa _____ rena da.

_____ eta _____ gara

Gure ahotsa kontraltoaren eta sopranoaren
artean dago. _____
gara

_____ren ahotsa
emakume ahotsaren erregistrorik baxuena
da.

Bere tinbre beroa ez da ohikoa emakumeen
artean. Tesitura hau badago *Errauskine*
operan.



Nire izena _____ da

Gizon ahotsen arteko altuena daukat,
_____ izena daukana.



_____ pertsonaia antzezten
dut

Nire ahotsaren tesitura ohikoena da gizon-
ahotsen artean. Tenore eta baxu ahotsen
artean kokatuta,



_____ bezala
ezagutzen da.

Gizonezko abeslari lirikoa naiz, giza
ahotsaren notarik baxuenak egiteko gai.


_____ ren papera egiten dut

Nire ahots-tesitura _____ rena da.


Pertsonaien arteko harremanak

Idatzi, gezien norabideari jarraituz, pertsonaien artean dagoen harreman pertsonala. Hauek dira erantzunak:

Jelosiak/ etengabean iraintzen du / beti izaten zaio amultsu / harroa /
jasankorra / zapaltzailea / esanekoa / haren boterea nahi du / haren
harrokeria mesprezatzen du / haren aberastasunak nahi ditu / maitasuna /
ez dio kasurik egiten / gorteiatzen du / alabaordea tratatzeko modua
deitoratzen dio / lagunak eta konplizeak



Erantzunak:



Magnifiko Jaunaren rapa

Bertso hauetan Magnifiko Jaunak printzesa baten aita gisa irudikatzen du bere burua. Handinahia, botere-ametsak, aberastasun-fantasiak... erakusten ditu.

Irakurri aitaordearen ameskeriak. Badute erritmoa, ezta?

Hiru edo lau talde txikietan, asmatu rap bat bertso hauetatik abiatuta.

Zuen antzezpenaren ondoren, entzun Rossinik konposatu zuena. Antzekoak al dira?

Ya estoy viendo mi futuro	¡Largo! ¡Largo! ¡Fuera!
siendo padre de princesa.	¡Fuera de mi vista, de mi lado!
Todos me hacen la pelota	¡Fuera! ¡Largo! ¡Fuera! ¡Largo!
y me invitan a cerveza!	¡Desapareced de aquí!
Éste quiere que lo encubra	
ése va y me trae churros.	
Y éste quiere que le nombren	Ya estoy harto de chorlitos.
profesor y el pobre es burro.	Ya estoy harto de regalos.
¡Y es burro!	¡Desapareced de aquí!
La exclusiva de las minas,	
de la pesca de sardinas.	
Todos piden y reclaman.	
Y me buscan y obsequian:	
Ovejitas y gallinas,	
y cajitas de aspirinas,	
y pasteles y jamones,	

y velitas y bombones.

Chucherías deliciosas.

Y las ropas más costosas.

Y doblones relucientes.

Sal, arenques y café.



Rossini hizki-zopa

Ezkerretik eskuinera

1 Ipuineko neskak dantzalditik ihes egitean gau erdian galdutako objektua.

4 G. Rossinik eta J. Ferrettik konposaturako operaren izena.

Kanabera bikoitzeko instrumentua, operan entzuten dena.

7 (Alderantziz) Printzez mozorrotzen den lekaioa.

11 Musika nota, dar-dar egitean 440 bibrazio segundoko diapasoi bat igortzen duena.

Gaztelaniaz, jelosiak.

13 Abestutako musika antzezpena.

14 Idazle frantsesa, *Errauskine* jatorrizko ipuinaren egilea.

Goitik behera

3 Errauskineren izena gaztelaniaz

5 (Alderantziz) Operan narratzailearena egiten duen animaliaren gaztelaniazko izena.

(Alderantziz) Musikari italiarra, *Sevillako Bizargina* operaren egilea.

7 Hari-instrumentua, teklatu baten bidez jotzen dena.

9 Antzerki konpainia, bertako zuzendaria Joan Font da,


11 (Alderantziz) Ahizpaorde zaharrenaren izena gaztelaniaz.

12 Erramioren ahots mota.

14 Errauskinek etxea garbitzen dion pertsonaiaren izena.

17 Montefioscaniko baroiaren alaba gaztearen izena.

Rossini letra-zopa



Rossini letra-zoparen erantzunak

	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	11	12	13	14	15	16	17
1				Z	A	P	A	T	A								
2		C			T												
3		E			A				C					M			
4	C	E	N	E	R	E	N	T	O	L	A		F	A	G	O	T
5		I							M		D			G			I
6		C					O		E		N			N			S
7		I	N	I	D	N	A	D			I			I			B
8		E			N		A		I		R			F			E
9		N			I		I		A		O			I			
10		T			S		P		N		L	T		k			
11		L	A		S				T		C	E	L	O	S		
12					O				S			N					
13		O	P	E	R	A						O					
14										P	E	R	R	A	U	L	T

Musika-tresnak

Idatzi tresna bakoitzaren izena. Adierazi gurutze batez operan entzun dituzunak.











☐

☐



Gran Teatre del Liceu
Servei Educatiu

La Cenicienta

Rossini - Comediants



Figurinak

Joan J. Guillén (eszenografoa)


- ⇒ Errauskine
- ⇒ Klorinda
- ⇒ Tisbe
- ⇒ Arratoi narratzailea
- ⇒ Dandini, printzez mozorrotua
- ⇒ Dandini, lekaioa
- ⇒ Magnifiko Jauna
- ⇒ Erramiro, lekaioz mozorrotua
- ⇒ Erramiro printzea





Errauskine

Errauskineren Gida Didaktikoa (Rossini - Comedians): M. Antònia Guardiet



Errauskine, dantzaldirako jantziarekin


Errauskineren Gida Didaktikoa (Rossini - Comedians): M. Antònia Guardiet



Klorinda



Klorinda



Tisbe



Tisbe



Arratoi narratzailea

Arratoi narratzailea





Dandini, printzez mozorrotua



Dandini, lekaioa



Magnifiko Jauna



Magnifiko Jauna



Erramiro, lekaioz mozorrotua



Erramiro, printzea




Gran Teatre del Liceu
Servei Educatiu

La Cenericienta
Rossini - Comediants



Bestelako baliabideak

- ⇒ Rossini Interneten
- ⇒ La Cenerentola / Errauskine
- ⇒ You Tube-ko bideoak
- ⇒ Opera grabazioak Interneten
- ⇒ *La Cenerentola* operaren DVD
- ⇒ *La Cenerentola* operaren CD



Rossini Interneten

➔ *Karadar classical music* musika klasikoko gaztelerazko hiztegi bat da eta bertan konpositore zerrenda bat aurki daiteke: biografiak, obrak, argazkiak,... MP3 eta MIDI formatuko fitxategiak jaistea ahalbidetzen du.

- G. Rossiniren biografia gazteleraz.

<http://www.karadar.com/Diccionario/rossini.html>

- G. Rossiniren argazkiak.

<http://www.karadar.it/PhotoGallery/rossini.html>

- G. Rossiniren inguruko informazioa: biografia eta obrak.

<http://es.wikipedia.org/wiki/Rossini>

- G. Rossiniren operen zerrenda.

http://es.wikipedia.org/wiki/Categor%C3%ADa:%C3%93peras_de_Rossini

➔ G. Rossiniren gustu gastronomikoei buruzko bitxikeriak dauzkan italierazko web-gunea.

http://www.pesaro.com/rossini/html/guida_rossini_chi_era_il_rossini_gastronomo_.html

➔ *Zapardiel*: G. Rossiniri eskainitako kultura eta gastronomia aldizkaria.

<http://www.terra.es/personal/aiolozil/revista/revzap2/art001.htm>

➔ *The Internet's Premier Classical Music Source* musika klasikoari eskainitako ingelesezko web bat da. G. Rossini konpositoreak informazio gune bat du.

<http://www.classical.net/music/composer/masterindex.php>

<http://www.classical.net/music/comp.lst/rossini.php>

➔ G. Rossiniren aipamen interesgarria aurkezten duen orrialde pertsonala. Haren biografia eta MIDI fitxategiak dauzka. Italieraz eta ingelesez.

<http://www.emmedici.com/hobbies/ehobbies.htm>

Errauskineren Gida Didaktikoa (Rossini - Comedians): M. Antònia Guardiet

La Cenerentola / Errauskine

➔ Hurrei eskainitako web-gunea. *Errauskineren* (*La Cenerentola*) (NAXOS diskoetxea) musikatutako istorioaren sinopsiaz gain (*La Cenerentola*) (NAXOS diskoetxea), katean burutuak izateko joko didaktikoak dauzka. Beste opera asko kontsulta daitezke, adinka sailkatuta eta irakasleriarentzako iradokizun didaktiko interesgarriak dituztenak.

http://www.cuentameunaopera.com/interior.asp?variable=index_partitura.htm

➔ *La Cenerentola* operaren testua italieraz.

http://www.karadar.com/Librettos/rossini_cenerentola.html

➔ *Errauskine* ipuinaren argumentu eta bertsio ezberdinen inguruko informazioa.

<http://es.wikipedia.org/wiki/Cenicienta>

➔ G. Rossiniren *La Cenerentola* operaren informazioa (gazteleraz, katalanez eta frantsesez).

http://es.wikipedia.org/wiki/La_Cenerentola

http://es.wikipedia.org/wiki/La_Cenerentola

<http://fr.wikipedia.org/wiki/Cendrillon>

➔ Opera garrantzitsuenen zerrenda kronologikoa, 1600etik 1958ra. Egileen argazkiak eta operen aipamen laburrak ditu.

http://ca.wikipedia.org/wiki/Llista_d%27%C3%B2peres_m%C3%A9s_importants

➔ Charles Perraulten *Errauskine* edo *Kristalezko txinela* ipuinaren testua. Teodoro Barok itzulita gaztelerara. *Miguel de Cervantes* liburutegi birtualetik aterata.

Errauskineren Gida Didaktikoa (Rossini - Comedians): M. Antònia Guardiet

http://www.cervantesvirtual.com/servlet/SirveObras/12482735339136079643846/p00000001.htm#I_0

→ *El poder de la palabra* web-guneak G. Rossiniren *La Cenerentola* operaren fitxa teknikoa dauka. Oso interesgarriak Cecilia Bartoli eta Ewa Polles abeslarien interpretazioetara bideraturiko bi musika-estekak.

<http://www.epdlp.com/opera.php?id=80>

La Cenerentolaren bideoak You Tuben: Liceu / Comedianti (2008)

→ Aipatu grabaketak Interneten daude, TV2n emandako irudi batzuetatik aterata, Patrick Summersen musika-zuzendaritzapean.

. Ahots protagonistak honakoak dira:

- Erramiro Jauna: Juan Diego Florez tenorea
- Magnifiko Jauna: Bruno de Simone baxu bufoa
- Dandini: David Menendez baritonoa
- Cenerentola: Joyce DiDonato mezzosoprano errossiniarra

→ Amodiozko duetoa Erramiro Jaun printzearen eta zoritxarreko Errauskineren artean. *He n otado una explosión cerca de mi corazón*. Zati honek haur-ikuskizunerako egindako txikiagotzeak aurkezten duena baino iraupen luzeagoa dauka. Merezi du bi abeslarien ahots birtuosismoari erreparatzea.

<http://www.youtube.com/watch?v=p05riXnoFBU&feature=related>

→ Bruno de Simone baxu bufoak *Miei rampolli femminini* abesten du. Oso aria komikoa da. Bertan, aitaordeak esnatu dutelako bere haserrealdia abesten du. Zati honetan haren amets iragarlea, haren handinahia entzun daiteke.

http://es.youtube.com/watch?v=lp_SLpjKgK4&feature=related

→ Dandini, David Menendez baritonoa, Magnifiko Jaunaren etxean sartzen da printzez mozarrotuta. *Come un ape n e' giorni d'aprile* aria abesten du ezkondu nahi duela iragarritz. Baritono ahotsaren ezaugarriak antzeman daitezke. Zati

Errauskineren Gida Didaktikoa (Rossini - Comedianti): M. Antònia Guardiet

luze eta distiratsua –zazpi minutukoa da- eta kontzertante batekin amaitzen da bost ahotsetara: *Y al final de esta dulce comedia, la tragedia aparecerá.*

http://es.youtube.com/watch?v=t_uoZr3hEkg

→ I. Ekitaldiaren Azken Kontzertantea. Magnifiko Jaunak jauregian sartzen den gazte ederra lehen aldiz ikusten duenean gertatzen da. Errauskine dela iruditzen zaio, baina zalantza egiten du. Afaria prestatzen da eta denak mahairantz joaten dira.

<http://es.youtube.com/watch?v=KuEM6m1ggdo>

→ *Questo è un no do avviluppato* sei ahotseko kontzertantea *La Cenerentola* operaren eszenarik komiko eta ikusgarrienetariko bat da. Nahiz eta zati hau gure ikuskizunean agertzen ez den, aintzat hartu behar da ikasleriak eszenalanari eta pertsonaia bakoitzaren mugimenduei errepara diezaien.

<http://www.youtube.com/watch?v=ZZkxDsPF1EY&feature=related>

→ *Zitto, zitto, pi ano, pi anok* Dandini zerbitzari/lekaio eta Erramiro Jaun printzearen arteko duo bat definitzen du. Honek, xuxurlatuz, bi ahizpetariko zein izango litzatekeen berarekin ezkontzeko duin esateko erregutzen dio. Erantzuna azkarra eta sendoa da: biak dira lotsagabeak eta harroak. Biek ere ez dute halako ohorerik merezi!

http://es.youtube.com/watch?v=VUsKoxlX7_M&feature=related

→ Juan Diego Florez tenoreak aria hau abesten du: *Ah r ritrovarla l o j iuro*. Bideoak dantzaldiaren azken uneak erakusten ditu, Errauskine eskumuturreko bat utzita joaten denean. Erramiro Jaun printzeak zerbitzari papera uztea eta ezezagunaren bila irtetea erabakitzen du, berarekin maitemindu da-eta.

<http://es.youtube.com/watch?v=haoM8J4hG1g>

→ Bruno de Simonek, Magnifiko Jauna antzeztuz, eta David Menendezek, Dandini morroiaren paperean, *Un segreto d'importanza* abesten dute. Egia,

Errauskineren Gida Didaktikoa (Rossini - Comedians): M. Antònia Guardiet

azkenean, azaleratu egiten da: lekaioak onartzen dio aitaordeari bera ez dela printzea. Erregetzako benetako kideak ez duela bere alabetariko inorekin ezkondu nahi ziurtatzen dio.

http://es.youtube.com/watch?v=VUsKoxIX7_M&feature=related

→ Joyce DiDonato abeslariak operaren amaierako *Non piu mesta* aria distiratsu eta zaila abesten du. Koloraturen zailtasuna abesteko gai izatea da abeslarien trebetasunaren proba.

<http://www.youtube.com/watch?v=jYyTvZyH3ko&feature=related>

Beste bideo batzuk You Tuben

→ *La Cenerentola* operako azken zatiak Cecilia Bartolirekin. Houstonen, Grand Operan, 1996an burututako grabaketa batetik aterata.

<http://www.youtube.com/watch?v=oAw7O13aiVM>

→ Cecilia Bartoli *Non piu mesta* aria abesten. Errauskine dagoeneko printzesa da eta sufrimendua ekarri dioten guztiei barkatu egiten die. Nabarmenak eta interesgarriak dira mezzosopranoaren koloraturak operaren amaieran. (1997)

<http://www.youtube.com/watch?v=qVZNx39xYiA&feature=related>

→ Walt Disneyen *Errauskine* filma (1950)

<http://es.youtube.com/watch?v=BjQqpaQSi6k>

→ G. Rossiniren operaren gaineko animazioa *Opéra I maginaire* film frantsesetik eratorria.

<http://es.youtube.com/watch?v=QCvoJL4ZfGg>

Interneten argitaratutako opera grabaketak

→ **Audición y apreciación musical** bloga. Interesgarria hainbat operaren grabaketekin lotzeko. *La Cenerentolarekin* lotutakoak:

Errauskineren Gida Didaktikoa (Rossini - Comedians): M. Antònia Guardiet

- *La Cenerentolaren* obertura: Vienako Orkestra Filarmonikoa, zuzendaria: Riccardo Chailly

<http://aam.blogcindario.com/2007/08/00561-g-rossini-obertura-de-la-cenerentola.html>

- *La Cenerentolaren* I. ekitaldiaren amaiera: *Signora è pronto in tavola*.

Frederica Von Stade (Errauskine), Claudio Desderi (Dandini), Francisco Araiza (Erramiro Jauna), Paolo Montarsolo (Magnifiko Jauna), Margherita Guglielmi (Klorinda), Laura Zannini (Tisbe), Teatro alla Scala-ko Orkestra. Claudio Abbado, zuzendaria, Jean Pierre-Ponnelle, eszena-zuzendaria.

<http://aam.blogcindario.com/2008/01/00932-g-rossini-signora-e-pronto-in-tavola-final-del-acto-i-de-la-cenerentola.html>

G. Rossiniren operaren gaineko animazioa, *Opéra l'imaginaire* film frantsesetik eratorria.

<http://aam.blogcindario.com/2007/08/00575-g-rossini-la-cenerentola.html>

- Baxu ahotsa. Magnifiko Jaunaren aria: *Intendente, regidor*

Eszena Erramiro printzearen jauregian gertatzen da. Dandinik eta zerbitzariak Magnifiko Jaunaren pedantekeriari barre egiten diote eta sotolari nagusi izendatzen dute.


<http://aam.blogcindario.com/2008/01/00940-g-rossini-intendente-regitor-aria-de-don-magnifico-de-la-cenerentola.html>

- Zatia: Bigarren ekitaldiaren amaiera: *Non pi u m esta*, Cecilia Bartoliren eskutik, New Yorkeko Metropolitan Operarekin. Bideo honek G. Rossiniren *La Cenerentolaren* mezzoen ariak abesteak eskatzen duen ahots trebetasuna erakusten du.


<http://aam.blogcindario.com/2007/02/00164-g-rossini-la-cenerentola-non-piu-mesta.html>

La Cenerentola operaren DVDko grabaketak


➔ Film erako bertsioa, umorez betetako eszenografiarekin eta haien ahotsen heldutasunera iritsi diren abeslariarekin.



➔ DVD honek *La Cenerentola* operaren bertsio oso komikoa eta ondo antzeztua erakusten du. Interesgarria Vladimir Jurowski orkestrazuzendariarekin eta Sir Peter Hall eszena-zuzendariarekin egindako elkarriketen edukia.



➔ Bertsio honetan Cecilia Bartoli mezzosoprano lirikoaren interpretazio bikaina entzun daiteke, Errauskineren paperean. Enzo Dara baxu bufoak Magnifiko Jaunaren oso bertsio pertsonala abesten du, baina dibertigarria izaten jarraitzen du.



La Cenerentola operaren CDA



La Cenicienta, El triunfo de la bondad Rossini-ren operatik abiatuta.

Georgina García-Mauriñoren
hautaketa, 2007



ROSSINI: *La Cenerentola*

(Cecilia Bartoli)

2 CD, 436 902-2